



OIARTZUNGO
UDALA



Oiartzungo kirol arloko diagnostikoa ikuspegi feministatik

2023ko uztaila

AURKIBIDEA

I. ZATIA: DIAGNOSTIKOA

1. Sarrera	8
2. Helburuak eta metodologia	10
3. Oiartzungo kirol arloko azterketa	13
3.1. Oiartzungo Udaleko Kirol Saila	15
3.1.1. Feminismoa arloarekin Koordinazioa	15
3.1.2. Azpikontratazioak	16
3.1.3. Hitzarmenak	18
3.1.4. Kirol-politika dirulaguntzen bidez	20
3.1.5. Kirol astea eta Kirol-sariak	27
3.2. Partaidetzako kirola	31
3.2.1. Kiroldegiko abonamenduak eta erabilera	31
3.2.2. Gidatutako jarduerak kiroldegian	36
3.2.3. Jarduera fisikoa eta kirola sustatzeko programa zehatzak	39
3.2.4. Norbere kabuz emakumeek herri eta natura-inguruneetan egiten duten jarduera fisikoa	41
3.3. Kirol federatua	44
3.3.1. Kirol-lizentziak	44
3.3.2. Teknikarien estamentua	50
3.3.3. Zuzendaritza batzordeak	52
3.4. Eskola kirola	55
3.4.1. Muittu programa	55
3.4.2. Eskola kiroleko programan parte hartzea	57

3.4.3. Teknikariak	61
4. Ondorioak	63



II. ZATIA: JARDUERA ILDOAK

1. Oiartzungo Udaleko Kirol Saila	70
2. Partaidetzako kirola	72
3. Kirol federatua	74
4. Eskola kirola	75



TAULEN ETA IRUDIEN AURKIBIDEA

TAULAK:

1. Proiektuan informazio bilketarako erabilitako teknikak	11
2. Oiartzungo biztanleria, adin tartearen eta sexuaren arabera	13
3. Klubekin sinatutako hitzarmenak 2021/2022	19
4. Kluben ohiko funtzionamendurako dirulaguntza 2022	21
5. Klubek ezohiko ekitaldiak antolatzeko dirulaguntzak 2022	24
6. Kirol-sariak 2016-2022	29
7. Abonamenduen ehunekoa biztanleriarekiko, adin-tartea eta sexuaren arabera	32
8. Gidatutako jardueretan partaidetza, sexua eta abonu kopuruaren arabera	36
9. Lehorreko jardueretan partaidetza, sexua eta jardueraren arabera	36
10. Uretako jardueretan partaidetza, sexua eta jardueraren arabera	37
11. Abitu programan parte hartzea urtea, adina eta sexuaren arabera	40
12. Oiartzungo lizentzia federatuak kirola, kluba eta sexuaren arabera	45
13. Oiartzungo lizentzia federatuak kirola eta sexuaren arabera	45
14. Oiartzungo lizentzia federatuak kirola, kategoria eta sexuaren arabera	47
15. Klubetako teknikarien lizentziak klubaren, kirolaren eta sexuaren arabera	51
16. Oiartzungo klubetako Zuzendaritza Batzordeetako karguak, sexuaren arabera	53
17. Oiartzungo klubetako zuzendaritza batzordeak kluba, kargua eta sexuaren arabera ..	54
18. Eskola kiroleko programan parte hartzea ikastetxea, matrikulazioa, kategoria eta sexuaren arabera	59
19. Eskola kiroleko teknikariak ikastetxea, sexua eta entrenatzen duten kategoriaren arabera	61

IRUDIAK:

1. Oiartzungo biztanleria, sexuaren arabera	13
2. Oiartzungo biztanleria, adin tartearen eta sexuaren arabera	14
3. Interneten Oiartzungo Elorosoro kiroldegian abonamendua egiteko atala	17
4. Interneten Oiartzungo Elorosoro kiroldegiko jardueren ordutegia	17
5. Kluben ohiko funtzionamendurako dirulaguntza 2022	22
6. Ez ohiko kirol ekitaldiak antolatzeko dirulaguntzak	25
7. Oiartzungo Kirol Asteko programa 2022	28
8. Kiroldegiko abonamenduen ehunekoa, sexuaren arabera	31
9. Abonamenduen ehunekoa biztanleriarekiko, adin-tartea eta sexuaren arabera	32
10. Partaidetza ehunekoa gidatutako jardueretan, sexuaren arabera	35
11. Lehorreko jardueretan partaidetza, sexua eta jardueraren arabera	37
12. Uretako jardueretan partaidetza, sexua eta jardueraren arabera	38
13. Abitu programan parte hartzea sexuaren arabera	39
14. Abitu programan parte hartzea sexua eta adin-tartearen arabera	40
15. Oiartzungo lizentzia federatuen proportzioa, sexuaren arabera	44
16. Oiartzungo lizentzia federatuak kirola eta sexuaren arabera	46
17. Oiartzungo lizentzia federatuak kategoria eta sexuaren arabera	47
18. Oiartzungo emakumeen lizentziak kirola, kategoria eta sexuaren arabera	48
19. Oiartzungo gizonen lizentziak kirola, kategoria eta sexuaren arabera	49
20. Oiartzungo klubetako teknikarien lizentziak sexuaren arabera	50
21. Oiartzungo klubetako teknikarien lizentziak kirola eta sexuaren arabera	51
22. Oiartzungo klubetako Zuzendaritza Batzordeetako kideak, sexuaren arabera	52
23. Oiartzungo klubetako Zuzendaritza Batzordeetako karguak, sexuaren arabera	53
24. Muittu programan parte hartzea sexuaren arabera	55
25. Muittu programan parte hartzea ikastetxea eta sexuaren arabera	56
26. Eskola kiroleko programan parte hartzea sexuaren arabera	58
27. Eskola kiroleko programan parte hartzea kategoria eta sexuaren arabera	58
28. Eskola kiroleko programan parte hartzea kategoria, sexua eta ikastetxearen arabera	59
29. Eskola kiroleko teknikariak sexuaren arabera	61



I. ZATIA: DIAGNOSIA

1. Sarrera

Tradizioz kirol arloa gizonen eremu izan da, haiei egotzitako estereotipoen – indarra, ausardia, abiadura, ziurtasuna- garapenerako gotorleku izanik. Arlo honetan parte hartzeko hamaika oztopo jarri zaizkie emakumeei, bereziki, “gizonezkotzat” hartu diren kirolean. Kirola gorputz jabekuntzarako tresna paregabea izanda ere, emakumeei jarduera fisikoa egiteko mugak jarri zaizkie beti, gogobetetasuna eta askatasuna sentitu, eta ahalduentze prozesua txikitatik gertatzea eragotziz.

Hori dela eta, EAEn orain arte onartu diren Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Plan guztietan kirola ere esku-hartze ardatza izan da. Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VI Planean hain zuzen, kirolean emakumeen partaidetza sustatzeko helburu operatibo zehatza ezarri da ahalduentze kolektibo moduan. Kirola egiten den modua dena delakoa ere (norbere kabuz, kirol elkarte batean, etab.), eta emakumeen aniztasuna kontuan hartuz, guztientzat asegarria den kirol baliabideen eskuragarritasuna ziurtatzea nahi da. Besteak beste, Udal kirol-baliabideak, eskaintzaren egokitasuna eta kirol-espazioen esleipena edo erabilpena aipatzen dira. Halaber, planak, ariketa fisikoaren bitartez auto-zaintzako jarduerak bultzatzeko garrantzia azpimarratzen du.

Bestalde, Oiertzungo Udalak, Feminismoko sailaren bitartez, norbere ibilbidea egiten ari da tokiko arlo guztietan emakume eta gizonen arteko parekidetasuna sustatzeko, baita kirol arloan ere. Halaber, aipatzekoa da, udalerriko kirol arloan jada abian jarri izan direla genero ikuspegia txertatzeko ekintzak, besteak beste, eskola kirolean hezkidetzat sustatzeko, edota emakume kirolariak eta arlo honetako profesionalak ikusgai egiteko, Kirol Astean egiten diren ekintza ezberdinen bidez.

Nolanahi ere, Oiertzungo Udalak beharrezkotzat jotzen du kirol arloa modu espezifikoan aztertzea eta lantzea ikuspegi feministatik. Ondorioz, aurtan onartu duen I. Plan Feministan 2022-2024, emakumeen ahalduentze sozial eta politikoari dagokion ardatzean, emakumeek gizartean parte har dezaten sustatzeko helburuaren baitan, Oiertzungo kirola arloaren diagnostikoa ikuspegi feministatik egiteko ekintza jaso du (A-2.3.1).

Gauzak horrela, aipatu Plan Feministaren ezarpenean, aurten kirol arloko diagnostikoa egitea lehenetsi du Udalak, emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko egungo oztopoak antzeman eta egoera hobetzeko ekintzak zehaztu asmoz.

Beraz, dokumentu honetan jasotzen dira Oiartzungo kirol arloan ikuspegi feministatik eginiko diagnostikoaren emaitza nagusiak.



2. Helburuak eta metodologia

• Helburuak

Proiektu honen helburu nagusia Oiertzungo Udaleko Kirol Arloko diagnostikoa ikuspegi feministatik egitea da.

Helburu horren baitan, beste hainbat helburu zehatz ezarri dira proiektua gauzatzeko:

- Oiertzungo kirol politikan genero ikuspegia txertaturik dagoen aztertzea.
- Tokiko kirol arloko azpi eremu ezberdinetan emakumeenganako diskriminazio egoerak antzematea.
- Arloa ikuspegi feminista batetik kudeatzeko proposamenak egitea.
- Laneko prozesua bera sentibilizazio tresnatzat erabiltzea kirol arloko agente ezberdinentzat.

• Metodologia

Egoeraren diagnostikoa egiteko, udalerrri bateko kirol sistema osatzen duten lau arlo nagusiak izan ditugu ardatz, hain zuzen:

- Udaleko Kirol Saila
- Partaidetzako Kirola
- Kirol federatua
- Eskola Kirola

Proiektua burutzeko metodologia mistoa erabili dugu, hain zuzen, datu kuantitatibo eta galdeketa, elkarriketa eta talde-sesioen bidez jasotako datu kualitatiboak uztartzen dituen metodologia.

Metodologia honi esker, alde batetik udalerriko kirol arloko partaidetza eta udal politika eta kudeaketa deskribatu ahal izan ditugu; eta bestetik, Oiertzunen jarduera fisikoa eta kirol arloko agenteek dituzten pertzepzioak, iritziak eta gogoetak ezagutzea ahalbidetu digu.



Garrantzitsua da azpimarratzea, informazioa jasotzetik haratago, azterketa prozesua bera Oiertzungo kirol esparruko eragileak sentsibilizatzeko tresna bat izan dela. Alde batetik, kirola eta feminismo arloak elkarlanean aritu direlako; eta bestetik, prozesua bera ikuspegi feministatik egiteak diskriminazio egoerak azaleratu eta partaideen hausnarketa sustatu duelako.

Ondoren, informazio bilketarako erabilitako teknika eta edukiak aurkezten dira:

1. Taula. Proiektuan informazio bilketarako erabilitako teknikak

	TEKNIKA	KOP	INFORMATZAILEA	EDUKIA
DATU KUANTITATIBOAK	---	---	Oiertzungo Udaleko Kirol Saila	Kirol politikak, kontratuak, hitzarmenak, diru-laguntza oinarriak; kiroldegiko eskaintza, abonatuaren kopurua adin taldeka eta sexuaren arabera, eskaintako jardueren partaidetza sexuaren arabera; klubei buruzko informazioa; eskola kiroleko partaidetza.
			Oiertzungo Udaleko Feminismo Saila	Feminismo Saitetik kirol arloan abian jarritako ekintzak, egindako azterketak eta proposamenak.
			www.gipuzkoa.net (Errolda eta Kirol-Data)	Oiertzungo biztanleriaren datuak, lizentzia federatuen datuak.
DATU KUALITATIBOAK	Elkarriketa erdi-egituratuak	1	Udaleko kirol teknikaria	Oiertzungo udal kirol politika, kudeaketa, ikuspegi feministaren presentzia, kirol esparruko arlo ezberdinetan partaidetza.
		1	Eskola kiroleko teknikaria	Eskola kiroleko antolamendua, eskaintza, nesken partaidetza adinaren arabera, beharrak eta proposamenak.
		1	Abitu egitasmoko teknikaria	Esperientzia, partaideen ezaugarriak eta beharrak, hobekuntza proposamenak.
		1	Kiroldegiko arduraduna eta langile bat (BPX) (2)	Kiroldegiko eskaintza eta partaidetza; azpiegituraren egoera; espazio ezberdinen erabilera sexuaren arabera; interseksionalitatea; gogobetetasuna erabiltzaileen aldetik; beharrak eta proposamenak.
		1	Oiertzungo emakume kirolariak eta Asanblea Feministako kideak ¹ (2)	Kirol ohiturak, Oiertzungo kirol eskaintza, partaidetza adina eta sexuaren arabera, ikuspegi interseksionala eta diskriminazio egoerak; azpiegitura; hobekuntza proposamenak.
	Taldea dinamikak ²	1	Partaidetzako kirola	Egiten dituzten jarduerak, kirol esperientzia, sumatutako desberdintasunak tipologiaren arabera, instalazioen inguruko iritzia, kirol guneen erabilpena sexuaren arabera, eskaintzari buruzko iritzia, kanpoko kirol guneak. Emakumeak eta kirola, aukerak, inguruko pertsonen ohiturak, gorputzaren gurtza eta onura psikologikoak. Hobekuntza proposamenak.
		1	Kirol federatua	Klubetan izandako esperientzia, oztupoak edo sumatutako diskriminazio egoerak; hautatze, parte hartze eta kirol uztean dauden desberdintasunak emakume eta gizonen artean; babes soziala; erreferenteak, inguruko laguntza; instalazioak; proposamenak.
	Galdeketa erdi-egituratuak	9	Partaidetzako kirola	Kirola egiteko herrian emakumeek aurkitzen dituzten oztupoak; arlo honetan aldarrikapenak; Udalak arlo honetan hartu beharko litzukeen neurriak.

ITURRIA: Norberak egingina

¹ Asanblada feministako kideek beren izenean parte hartu dute Asanbladak oraindik ez duelako hausnarketa eta posizionamendu kolektibo bat egin Oiertzungo kirol arloari dagokionez.

² Oiertzungo 15 emakumeekin egindako talde dinamikak.

Guztira 31 pertsonak parte hartu dute proiektuan, horietatik 27 emakume izanik. Elkarrizketetan, 4 emakumek eta 3 gizonek parte hartu dute; dinamiketan, 15 emakumek; eta galdeketetan, 8 emakumek eta gizon batek.

Informazio biltetarako erabilitako elkarrizketen eta talde-dinamiken gidoiak Auentok berak sortuak izan dira.

Galdeketa ereduari dagokionez, Feminismo teknikariak sortu zuen eta kanal ezberdinetatik klubei, kirolariei, eta herriko emakumeei helarazi zien.



3. Oiartzungo kirol arloko azterketa

Oiartzunek 10.331 biztanle ditu guztira, 5.203 emakume eta 5.128 gizon; populazioa honela dago banatuta, adin tarte hauen arabera:


2. taula. Oiartzungo biztanleria, adin tartearen eta sexuaren arabera

Adina	Emakumeak	Gizonak	Guztira
0-16	822	851	1.673
17-40	1.247	1.289	2.536
41-65	2.009	2.015	4.024
65+	1.125	973	2.098
Guztira	5.203	5.128	10.331

ITURRIA: Norberak egina, www.gipuzkoa.net orritik ateratako datuetatik abiatuta

Biztanleriaren % 50 emakumeak dira, eta % 50 gizonak.

1. irudia. Oiartzungo biztanleria, sexuaren arabera




ITURRIA: Norberak egina.

Oiartzungo Udaleko Kirol Sailaren banaketaren arabera³, biztanle kopururik handiena 41-65 urte bitartean egongo litzateke emakume zein gizonetan.

³ Kirol-abonamenduak adin-tarte hauen arabera ezartzen dituzenez Udalak, horiek erabili dira biztanleriaren banaketa egiteko.

2. irudia. Oiartzungo biztanleria, adin tartearen eta sexuaren arabera



ITURRIA: Norberak egina.

3.1. Oiertzungo Udaleko Kirol Saila

Datozen lerroetan ikuspegi feministatik Oiertzungo Udaleko Kirol Saileko politiken azterketaren ondorio nagusiak deskribatuko dira. Azterketa hau egiteko kontuan hartu da, arloak abian jartzen dituen ekintzetan edo arloko baliabideen kudeaketan genero ikuspegia txertatu den ala ez.

3.1.1. Feminismoa arloarekin koordinazioa

Kirola eta Feminismoa sailen arteko elkarlana izan da diagnostiko honen oinarrietako bat, eta hein batean, datozen ataletan ikusi ahal izango den moduan, kirol-politiketan genero ikuspegia txertatzea ahalbidetu duena.

Oiertzungo Udaleko Feminismo arloan kirola aintzat hartu izan da 2008 urtean herrian lehen Parekidetasun Diagnostikoa egin zenetik. Alabaina, Udalean bi arlo hauetako teknikari berrien etorrerarekin, 2018 urtea izango da bi sailen arteko elkarlanaren hasiera. Ordutik gaur arte, hainbat genero klausula txertatu dira kirol arloko politiketan. Batetik, modu formalean, azpikontratatzaren zerbitzuen kontratazioaren oinarrietan, kirol azpiegitura hobetzeko Gipuzkoako Foru Aldundiari dirulaguntza eskatzeko genero-eragineko txostenean, kirol-elkarteekin sinatzen diren hitzarmenetan, eta elkarteei ematen zaizkien dirulaguntzetan. Eta, bestetik, kirol arlotik antolatzen diren ekintzetan Feminismo sailetik proposamenak eginez, esaterako, Kirol Asteko programazioa diseinatzeko orduan.

Bi arlo hauen koordinazioa bilera zehatzetan zein eguneroko lanean islatzen da, batez ere, bi arrazoiengatik: teknikari biek espazio berean lan egiten dutelako, eta kirol teknikariak konpromisoa duelako kirol arloko politiketan ikuspegi feminista barneratzeko.

Aldez aurretik esan behar da, aztertutako kirol-politiketan zehaztaperen maila handia aurkitu dela txertatutako genero-klausulei dagokienez. Hala ere, kontuan hartu behar da kirol-politiken oinarrian ikuspegi feminista txertatzea pauso handia izan arren, ezinbesteko dela, ondoren, abian jartzen diren **politika horien genero eragina aztertzea hobetzeko dauden alderdiak antzemate aldera.** Horretarako, datu-jasoketa zehatza egin beharko litzateke eta emaitzak eguneratuta eduki.

Zentzu honetan, honako txostenaren helburu ere bada bi sailen arteko elkarlanerako ondorengo pausoak zehazteko oinarriak eskaintzea.

3.1.2. Azpikontratazioak

Oiertzungo Udaleko Kirol sailak bi kontratazio nagusi egiten ditu lehiaketa publiko bidez: batetik, Elorsoro kiroldegia, Madalensoro pilotalekua, eta Udako igerilekua kudeatzeko kontratazioa, egun BPX enpresak egiten duena; eta bestetik, Eskola Kirola, Muittu eta Eskola Pilotaren koordinazioa eta herriko kirol eragileentzako aholkularitza antolamendua egiteko, KIROLAISI enpresak egiten duena.

Bata zein bestearen oinarri teknikoek genero-klausula zehatzak txertatuta dituzte. Zehazki, Elorsoro, Madalensoro eta Udako igerilekuari dagokionez, honako eskakizunak ezartzen dira:

- Kontratua sinatu eta bi hilabete igaro baino lehen, Berdintasun Plana aurkeztea.
- Ikastaroen izen-emateen, gogobetetasun inkestaren, fisioterapia zerbitzuaren eta beste programen datuak sexuaren arabera banatuta jasotzea.
- Langileen zerrenda sexuaren arabera banatuta aurkeztea.
- Adin-txikikoekin harremana duten langileek sexu-deliturik ez duten ziurtagiria aurkeztea.
- Publizitate eta komunikazioan hizkuntza inklusiboa eta irudi ez estereotipatuak eta gorputz-anitzak erabiltzea.

Guztiz egokitzat hartzen dira honako klausulak, eta orain arte Oiertzungo Udalak horiek betetzeko hartutako neurriak. Esaterako, 2022ko maiatzean, Kirol arloko teknikariak Feminismo arloko teknikariari enpresak aurkeztutako Berdintasun Plana aztertzea eskatu zion. Feminismo arloak txosten bat egin zuen non Planari buruzko zehaztapenak eskatzen zaizkion enpresari, eta hurrengo lizitazioetarako gomendioak egiten diren.

Hau guztia kontuan hartuta, eta diagnostiko hau egiteko azterketan oinarrituta, bi proposamen egingo genituzke:

- **Hurrengo kontratuetan enpresei haur eta nerabeak indarkeriaren aurrean babesteko 8/2021 legearen eskakizunak betetzeko eskatzea:** enpresak protokoloa edukitzea, babeserako ordezkaria izendatuta edukitzea, adin-txikikoekin lan egiten duten langileek

oinarrizko formakuntza eginda edukitzea, eta enpresak arlo honetan hartutako prebentzio-
neurrien jarraipena egitea.

- Egun egiten duten **komunikazio guztia inklusiboa** (“abonados”, “natación adultos”) eta ez estereotipatua dela ziurtatzea⁴.

3. irudia. Interneten Oiartzungo Elorosoro kiroldegian abonamendua egiteko atala



ITURRIA: <https://www.bpxport.es/es/centro-deportivo/gipuzkoa/oartzun/oartzun/#cuotas>.

4. irudia. Interneten Oiartzungo Elorosoro kiroldegiko jardueren ordutegia

	OREKATU	JOLASEAN	SASOIAN	ELORSOROKO JARDUERAK IRALIAK 1 - 28 SEPTIEMBRE
	GOGOTSU	OLATU TXIKIEN ARTEAN		
EGUNAK ORDUAK	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA
8.00		AQUAGYM / IGERILEKU		AQUAGYM / IGERILEKU
9.00	YOGA / TATAMI 2	MULTIFITNESS / SALA 1	YOGA / TATAMI 2	MULTIFITNESS / SALA 1
9.30		CYCLING / SALA CICLO		CYCLING / SALA CICLO
10.00	TONIFIKAZIOIA / SALA 1		TONIFIKAZIOIA / SALA 1	
13.30	CYCLING / SALA CICLO		CYCLING / SALA CICLO	
16.30	MULTIFITNESS / SALA 1	MULTIFITNESS / SALA 1	MULTIFITNESS / SALA 1	MULTIFITNESS / SALA 1
18.30	HAURREN ESKALADA INF. / ROKODROM		HAURREN ESKALADA INF. / ROKODROM	
18.45	CYCLING / SALA CICLO	CYCLING / SALA CICLO	CYCLING / SALA CICLO	CYCLING / SALA CICLO
19.30	PILATES / TATAMI 2	HIPOPRESIVOS / SALA 2	PILATES / TATAMI 2	HIPOPRESIVOS / SALA 2
20.30	HELDUEN ESKALADA ADULTOS / ROKODROM	AEROBIK / SALA 2	HELDUEN ESKALADA ADULTOS / ROKODROM	AEROBIK / SALA 2
		ZUMBA / SALA 2		ZUMBA / SALA 2

ITURRIA: https://www.facebook.com/BPXportOartzun/photos/pb.100057082824687.-2207520000.1267211033671114/?type=3&locale=es_ES.

⁴ Honen harian, 2018 urtean berdintasun teknikariak kexa bat jaso zuen kiroldegiko komunikazio kanpaina batean irudi lodifoboa agertzen zela iritzita. Txostena egin eta, orduan kiroldegiko arduraduna zen kudeatzailearekin bilera egin zuen kexaren berri emateko eta berdintasun politikaz hitz egiteko.

Bestalde, Eskola Kirola, Muittu eta Eskola Pilotaren koordinazioa eta herriko kirol eragileentzako aholkularitza zerbitzua kontratatzeke preskripzio teknikoei dagokienez, kasu honetan ere, genero-klausulak txertatu dira, besteak beste:

- Parte hartzen duten eragile ezberdinen balorazioa jasotzea genero adierazleak txertatuz.
- Datuak sexuaren arabera banatuta jasotzea eta genero adierazleak kontuan hartzea.
- Udal Kirol Aholku Batzordeko eragileen parte-hartzea dinamizatzea genero ikuspegia aintzat hartuz.
- Gazteria eta Kirola Sailaren zuzendaritzapean, urtero, kirol astea antolatzea genero ikuspegitik.

Irizpide hauek guztiak egokitzen jotzen diren arren, **komenigarria litzateke Kirol Aholku Batzordean genero ikuspegia aintzat hartzea eta kirol astean genero ikuspegia txertatzea neurtzeko adierazle zehatzagoak ezartzea** (eta jada hartzen badira, ebaluazio txostenetan zehaztuta agertzea ere bai). Esate baterako, batzordean, emakumeen partaidetza sustatzeko hartutako neurriak, eta hauek izandako eragina; eta **Kirol astean, genero ikuspegia ebaluatzeke erabiliko diren irizpideak**, adibidez, emakume eta gizon hizlarien kopurua, partaide edo entzule izan diren emakume eta gizonen kopurua, gaitan emakumeek kirol arloan dituzten oztopoak islatu izana, edo kirolean bereziki emakumeei eragiten dieten gaiak jorratzea ere bai.

3.1.3. Hitzarmenak

Gaur egun, Oiertzungo Udalak bi motatako hitzarmenak egiten ditu kirol arloan. Batetik, herriko bi ikastetxeekin Eskola Kirola egitasmoa, Muittu, Eskola Pilota eta eskola orduz kanpoko jardueren koordinaziorako; eta bestetik, kirol elkarteekin herrian kirola sustatzeko. Horrez gain, esan behar da, Oiertzun Kirol Elkarteak emakidan duela Ugaldetxoko futbol zelaia, bertako argia eta mantenua udalak bere gain hartzen duelarik.

Ikastetxeei dagokienez, Elizalde Ikastetxeak 2022/2023 ikasturtean 20.440,48 € jaso ditu eta Haurtzaro ikastolak 34.907,36€. Kopuru horren barruan sartzen dira ikastetxe bakoitzak kontratatzen dituen teknikarien soldatak. Guztira, 55.347,84 € banatzen ditu Oiertzungo Udalak herriko ikastetxeen artean, programa ezberdinen bidez eskola adinean jarduera fisikoa eta kirola sustatu dezaten.

Aipatu hitzarmenetan hainbat genero-klausula txertatu dira, besteak beste:



- Dirulaguntzaren eragina neurtzeko adierazleak (6.2 atala), non kontuan hartzen diren antolatutako ekintza kopurua eta partaide kopurua, sexuagatik bereizita; komunikazio bitartekoetan hizkera inklusiboa eta irudi ez sexistak erabiltzea; eta emakumeen parte hartzea bultzatzeko ekintzak abian jartzea.
- Ondoren, parekidetasun irizpideak ezartzen dira (10 atala). Aurreko ataleko lehen biak errepikatzen dira, eta hirugarren bat ezartzen da 6.2 ataleko hirugarrena ez dena: genero ikuspegia txertatzeko ekimenak antolatu beharra.
- I. Eranskinean kirol entrenatzaileen baremazioa egiteko sei atal⁵ ezberdintzen dira, horietako bat genero ikuspegia izanik. Atal honetan bi aldagai hartzen dira kontuan: taldeen arabera aldagaia eta kirol entrenatzaileen arabera aldagaia. Adierazle hauek ekintza positiboa ekartzen dute sortzen diren talde guztietatik neskena den talde bakoitzeko (talde mistoek trataera neutroa dute), eta entrenatzaile guztietatik, parte hartzen duten emakume entrenatzaile bakoitzeko.

Klausula hauek egokitzen jotzen dira. **Hobekuntza bezala, 6.2 atala eta 10 ataleko irizpideak bateratzea** aholkatzen dugu, bereziki, genero ikuspegia txertatzeko ekimenak antolatzeari dagokionez. Agian, 6.2 ataleko hirugarren irizpidea erabili daiteke eredu, bizpahiru adibide gehiago sartuz. Horrez gain, komenigarria litzateke gastuak justifikatzeko edota ikasturteko balorazio txostena egiten denean, **irizpide hau betetzeko egindakoaren berri ematea**.

Bestalde, klubekin sinatzen diren hitzarmenei dagokionez, 2021/2021 urtean sei hitzarmen gauzatu ziren, guztira 9.961,62 € bideratuta kontzeptu honetan.

3. taula. Klubekin sinatutako hitzarmenak 2021/2022

Elkartea	Proiektua	Kopurua
Girizia Mendi Elkartea	Aste buruko mendi irteerak, jardunaldi-hitzaldiak, eskolarteko ibilaldi neurtuak.	2.500,00
Hondar Irún CDN	Eskola kirola, parte hartze, errendimendu eta igeriketa egokitua; Xanisteban Saria.	1.338,89
Lartaun Zikloturistak	Aste buruko irteerak, Xanisteban Saria, Arditurriko egunean laguntza.	750,00
Mikel Doenea Euskal Makil Borroka Taldea	Makilarekin borrokatzeko artea ezagutaraztea, ikastaroak antolatzea.	1.400,00
Mindara Elkartea	Egokide: futbol egokitua eta handbike entrenamendu saioak.	2.500,00
Otxe Oarsoaldea Txirrindularitza Kirol Kluba	Oarsoaldean jarduerak antolatu, txapelketetan parte hartu, MTB txapelketa antolatu, Open San Markos antolatu.	1.472,73
Guztira		9.961,62

ITURRIA: Oiarzongo Udala.

⁵ Bi hitzarmenetan 6 atal agertzen dira, baina Elizalde Ikastetxeko hitzarmenean 1 zenbakia bi aldiz erabili dago atal desberdinetan, ondorioz, 5 atal zenbakitu dira. Hitzarmena berriz sinatzen denean hau zuzendu egin beharko litzateke.

Ez dugu daturik sei elkarte hauek antolatutako jarduera horietan emakume eta gizonen partaidetza zehatzari buruz. Elkarteen lizentzia kopuruari begiratu gero, soilik bi elkarteren datuak dauzkagu: Girizia Mendi Elkartea, non 107 emakumek eta 213 gizonek lizentzia duten, eta OTXE, non 3 emakumek eta 35 gizonek lizentzia duten. Ondorioz, ezin da gastuaren genero eraginaren azterketa egin.

Hitzarmenetako edukia aztertuz gero, guztiek txertatuta dituzte parekidetasun-irizpideak, hain zuzen:

- Antolatzen diren ekimen, jarduera eta programetan datuak sexuagatik bereizita jasotzea eta udalari horren berri ematea aurkeztu behar duten txostenean.
- Dokumentazio guztiak hizkuntza inklusiboa eta irudi ez sexistak erabiltzea.
- Genero ikuspegia txertatzeko ekimenak antolatuko dira.

Azpimarratu behar da, oso garrantzitsua dela elkarte hauentzat Udalaren laguntza jasotzea haien jarduera aurrera eraman ahal izateko. Alabaina, udalak bitartekoak jarri beharko lituzke hitzarmen horietan ezartzen diren oinarritzko genero-baldintzak bete ditzaten; eta emakumeek parte hartzen ez duten ekintzetan, urtero, haien partaidetza sustatzeko ekintzaren bat abian jartzea eta udalari horren berri ematea. Beraz, udalari, **komunikazio parekidea erabili izanaren eta genero ikuspegia txertatu izanaren berri eman beharko liokete. Agian, azken irizpide hau gehiago zehaztu beharko litzateke hitzarmenetan bertan “emakumeek parte hartzeko hartutako neurriak edo abian jarritako ekintzak” jarritz parekidetasun-irizpideen artean.**

Halaber, elkarteei, bereziki kirol egokitua lantzen dutenei, **informazioa sexua eta desgaitasunaren arabera** emateko eskatu beharko litzaietke.

3.1.4. Kirol-politika dirulaguntzen bidez

Dirulaguntzak tresna garrantzitsua dira udaleko kirol politika ezartzeko orduan. Gaur egun, Oiertzungo Udalak lehia libreko bi dirulaguntza ildo ditu kirol arloan: klubak ohiko funtzionamendurako dirulaguntzak; eta klubak ezohiko jarduerak antolatzeko dirulaguntzak. Haez gain, kirol-elkarteen ere dirulaguntza jasotzen dute Kultura Arlotik Xanisteban festetan antolatzen dituzten jarduera berezietarako.

2022 urtean 54.000,01 € banatu zituen Oíartzungo Udalak kirol-elkarteen artean haien ohiko funtzionamendurako. Gutxienez, kopuru honen % 25 (13.596,52 €), egun emakumeen lizentzia federaturik ez duen klubentzat bideratu zen (Oiarpe, Txost, Saskilagunak eta Delta Klub Haize).

4. taula. Kluben ohiko funtzionamendurako dirulaguntza 2022

Elkartea	Kopurua	Emakumeak	Gizonak	Guztira	€/Lizentzia
OIARTZUN KIROL ELKARTEA	30.691,69 €	108	181	289	106,20 €
OIARPE KIROL ELKARTEA	6.828,42 €		30	30	227,61 €
HAURTZARO K.E. (Atletismo)	6.502,68 €	8	16	24	270,95 €
TXOST OIARTZUNGO PILOTA K.K.	5.489,28 €		23	23	238,66 €
HIRUKI BIRA GIMNASIA K.	3.209,12 €				
OIARTZUNGO SASKILAGUNAK S.K.T.	1.109,92 €		16	16	69,37 €
DELTA KLUB HAIZE	168,90 €		6	6	28,15 €
Guztira	54.000,01 €	116	272	388	139,18 €


ITURRIA: Norberak egina Oíartzungo Udalak emandako datuetatik abiatuta.

Oíartzun Kirol Elkartek herriko klubetako ohiko funtzionamendurako gastuaren % 57 jasotzen du.

Jasotako dirulaguntza lizentzia kopuruarekin alderatuz gero, atletismoa da lizentziagatik diru gehien jasotzen duen kluba; Oiarpe litzateke bigarren, eta Txost hirugarren⁶.

⁶ Kontuan izan behar da, Oíartzungo Udalak pilota babesteko eta sustatzeko apustua egin zuela herrian tradizioa dutelako eta kultura-ondaretzat hartzen direlako; eta hala jasotzen dute dirulaguntza oinarriek nahiz eta ez den pilota zehazki aipatzen.

5. irudia. Kluben ohiko funtzionamendurako dirulaguntza 2022



ITURRIA: Oiartzungo Udala.

Elkarte bakoitzari banatzen zaion dirulaguntza oinarrietan lortzen den puntuazioaren arabera egiten da, bertan hainbat genero-klausula aurkitzen direlarik:

- Lehen artikuluan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea eta beronen aldaketak martxoak 3ko 1/2022 Legeak ezarritakoak errespetatu beharra ezartzen da.
- Bigarren artikulua, ondorengo entitateei dirulaguntza ez zaiela emango esaten du:
 - Elkarateak sexu-bereizkeriagatik zigor administratiboa edo penala jaso duenean.
 - Erakundeak edo entitateak bere helburuetan, onarpen-sisteman, funtzionamenduan, ibilbidean edo jardueretan emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak diren edo argi eta garbi bereizkeriakoak diren kontuak edo alderdiak dituztenei.
 - Ezingo dute onuradun izaera eskuratu beren baitan gizon eta emakumeen presentzia eta parte-hartzea berdintasun egoeran gauzatzea galarazten duten elkarateak, salbu eta, sexu bakarreko kideek osatutako elkarateak izanik, helburu nagusia gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzea edo emakumezkoen nahiz gizonezkoen berariazko interes eta beharrak sustatzea dutelarik.
- Dirulaguntza irizpideei dagokienez, besteak beste, ikuspegi interseksionala kontuan hartuz, emakume ereduaren presentzia sustatzeko, eta klubek kirol-uztea ekiditeko neurriak har ditzaten, hainbat ekintza positibo jasotzen dira:

- Emakumeen federazio lizentziek 0,5 puntu gehiago jasoko dituzte.
- 12-18 urte bitarteko kirolari bakoitzeko puntu bat gehiago.
- Aniztasun funtzionala duen kirolari lizentzia bakoitzeko, 10 puntu gehiago.
- Emakume entrenatzaile bakoitzeko, 1,5 puntu.
- Zuzendaritza parekidea izateagatik, gehienez 10 puntu.

Dirulaguntza oinarrietan ere, hainbat betebeharrak zehazten dira emakume eta gizonen berdintasunari dagokionez, zehazki, dirulaguntzen Udal Ordenantzaren 8 artikulua ezartzen duena betetzea:

- Hizkuntza inklusiboa eta irudi ez sexistak erabiltzea komunikazio guztian.
- Berdintasunean positiboki eragiteko bermea.
- Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpidea txertatzea proiektuetan.
- Datuak sexuaren arabera bereiztea proiektuetan eta memorietan.

Irizpide hauek guztiak guztiz egokiak dira diskriminazio egoerak ekiditeko eta emakumeen partaidetza sustatzeko klubetako estamentu ezberdinetan. Alabaina, **beharrezko da klubek horiek betetzen dituzten jarraipena egitea.**

Egun, Oiertzungo Udalak, dirulaguntzak eskatzeak dakartzan tramite administratibo guztiak kontuan hartuta, kudeaketa hauetan laguntza ematen die herriko klubei KIROLAISI enpresaren bitartez. Agian, modu berean, jarraipena egiteko irizpideak ezarri zitezkeen enpresa honekin batera. Klubetako boluntariotza kontuan hartuta, eta betebeharrak guztiei aurre egiteko dauzkaten mugak kontuan hartuta, agian informazioaren sakontasun maila ezberdinak ezarri zitezkeen jasotako diru-kopuruaren arabera.

Oiertzun Kirol Elkarteak, esaterako, informazio sakona eman beharko lioke udalari; lizentzia kopuruaz gain, baliabideen banaketa berdintasun irizpideen arabera egiten duela azaldu (entrenamendu orduak, zelai osoa edo erdia, emakume eta gizonei esleitutako entrenatzaileen formakuntza eta baldintzak, komunikazioan emakumeen taldeen presentzia, etab.). **Pilota elkarteak**, bestalde, emakumeen partaidetza sustatzeko proiektuen bat abian jarri beharko lukete.

Nolabait, **klubekin lan egin beharko litzateke urtez-urte berdintasunerako konpromisoak** har ditzaten, abian jarritako neurrien emaitza neurtuz (kuantitatiboki eta kualitatiboki).

Bestalde, kirol ekintza bereziei dagokienez, 2022 urtean Oiertzungo Udalak 13.000 € banatu zituen kontzeptu honetan. Guztira 15 ekitaldi ospatzeko eman zuen dirulaguntza, horietatik 8 pilotakoak (esku pilota, pala, pasaka) izanik.


5. taula. Klubek ezohiko ekitaldiak antolatzeke dirulaguntzak 2022

Ekitaldia	Elkartea	Kopurua
EH PALA TXAPELKETA	GIRIZIA KULTUR ETA KIROL ELKARTEA	876,92 €
HERRIARTEKO TXAPELKETA	OIARPE KIROL ELKARTEA	1.276,92 €
GAZTEENTZAKO PILOTA EKITALDIA	OIARPE KIROL ELKARTEA	600,00 €
PILOTA JAIALDIA	OIARPE KIROL ELKARTEA	753,85 €
OIARTZUNGO BTT SARI NAGUSIA	OTXE OARSOALDEA TXIRRINDULARITZA K.K.	1.215,38 €
OIARTZUNGO GAZTEEN MTB TXAPELKETA	OTXE OARSOALDEA TXIRRINDULARITZA K.K.	753,85 €
URTXALLE SARIA	TXOST OIARTZUNGO PILOTA K.K.	784,62 €
TXOST PALA SARIA	TXOST OIARTZUNGO PILOTA K.K.	676,92 €
PASAKA ESKUZ TXAPELKETA	TXOST OIARTZUNGO PILOTA K.K.	861,54 €
URKABEKO IGOERA	ZORROLA TRAIL KIROL KLUBA	815,38 €
INTXIXU TRAIL MENDI LASTERKETA	ZORROLA TRAIL KIROL KLUBA	1.523,08 €
ZIRKO TAILERRA	OLGA CORROCHANO ARRIBAS	815,38 €
GIMNASIA AKROBATIKO TOPAKETA	HIRUKI BIRA GIMNASIA K.	461,54 €
XANISTEBAN PALA TXAPELKETA	GIRIZIA KULTUR ETA KIROL ELKARTEA	753,85 €
XLI IBILALDI NEURTUA	BIZARDIA KJKE	830,77 €
Guztira		13.000,00 €

ITURRIA: Oiertzungo Udala.

Pilotako ekitaldiek dirulaguntzen % 51 jaso zuten eta mendi lasterketek % 18. Gainontzeko ekitaldiak dirulaguntzaren % 4 eta % 9an kokatzen dira.

6. irudia. Ez ohiko kirol ekitaldiak antolatzeko dirulaguntzak



ITURRIA: Oiartzungo Udala.

Ekintza berezietarako dirulaguntzetako oinarriek, lehenengo bi artikuluetan, ohiko funtzionamendurako dirulaguntzen oinarrietan agertzen diren genero-klausula berdinak jasotzen dituzte (Berdintasun Legea eta dirulaguntza ez emateko zirkunstantziak); eta balorazio-irizpideetan emakumeen parte hartzea sustatzeko ekimenei gehienez 15 puntu esleitzen zaizkie (150etik) 5 puntu emanez ekimen bakoitzeko. Betebeharretan, Dirulaguntzen Ordenantzaren 8 artikuluari erreferentzia egiten zaio kasu honetan ere. Justifikazioan, besteak beste, VI eranskina (jardueraren memoria) betetzea eskatzen da, baina eranskin honetan ez da zehazten datuak sexuaren arabera bereizteko.

Komenigarria litzateke oinarri hauetan emakumeen partaidetzari garrantzia handiagoa ematea, adibidez, irizpide bakoitzaren pisu espezifikoan berdintasunari puntu gehiago emanez, eta horretan, partaideen % 50 emakumeak badira puntuazio altuena esleitu, puntuak gutxituz parte hartzen duten emakumeen ehunekoaren arabera. Halaber, VI eranskinean datuak sexuaren arabera bereiztea eskatu beharko litzateke gastuaren genero-eragina ezagutu ahal izateko.

Arestian aipatu bezala, Oiertzungo Udalak ere dirulaguntzak ematen ditu Xanisteban jaietan ekitaldiak antolatzeko, tartean, hainbat kirol-ekitaldi. Dirulaguntza hauek Kultura Arlotik bideratzen dira eta oinarrien lehen bi artikuluek aurreko bien baldintza berdinak ezartzen dituzte Berdintasun Legea eta dirulaguntzak ez jasotzeko baldintzei dagokienez.

Balorazio-irizpideetan emakumeen parte hartzea sustatzeko honako puntuazioa ezartzen da (gehienez 20 puntu 150etik):

- Emakumezkoen eta gizonezkoen parte hartzean oreka lortzeko neurriak ikuskizunean (2 p) , ikuslegoan (2 p) eta antolaketan (2 p). 2 puntu atal bakoitzeko, gehienez 6.
- Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatzea proiektuetan. 2 puntu neurri bakoitzeko, gehienez 4.
- Ekitaldian ikuspegi estereotipatuak desagerraraztea eta genero-rolak apurtzea sustatzea. 2 puntu neurri bakoitzeko, gehienez 4.
- Bereizkeria anizkoitza pairatzen duten emakumeen parte hartzea errazteko berariazko neurriak hartzea (adineko emakumeak, etorkinak, alargunak, aniztasun funtzionala dutenak...). Puntu 1 neurri bakoitzeko, gehienez 4.
- Bizitza familiarra, pertsonala eta lanekoa, eta ekitaldietan parte hartzea bateragarri egiteko berariazko neurriak hartzea. Puntu 1 neurri bakoitzeko, gehienez 2.

Horrez gain, 10 puntu esleitzen zaio bazterkeria arriskuan dauden kolektiboak erakartzeko ahaleginari (haurrak, gazteak, emakumeak, adinekoak, desgaitasuna duten pertsonak, atzerriko jatorria duten pertsonak..., bazterkeria arriskuan badaude). 5 puntu kolektibo bategatik, eta 10 puntu bi kolektibo baino gehiago badira.

Betebeharretan hizkera inklusiboa eta irudien erabilera ez sexista ezartzen da, eta proiektuetan genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatzea. Horrez gain, zuzendaritza organoetan emakume eta gizonen ordezkaritza parekatua sustatzea eskatzen da. Halaber, ekintzaren zehaztapenean datuak sexuaren arabera bereiztea eskatzen da.

2018 urtean, Oiertzungo Udaleko berdintasun teknikariak Sanixteban jaietako ekitaldien genero-eragina aztertzeko saiakera egin zuen, baina elkarteek ez zituzten eskatutako datu guztiak ematen

edo irizpide ezberdinen arabera ematen zituzten datuak. Hala ere, landutako datuek emakumeen parte hartzea oso baxua dela utzi zuten agerian. Ondorioz, Kros Herrikoiaaren azterketa sakonago bat egin zuen eta antolatzaileekin hitz egin emakumeen parte hartzea handitzeko neurriak hartu zitzaizten.

Aurreko bi dirulaguntza oinarrietan bezala, irizpideak egokitzen jotzen badira ere, oso garrantzitsua da Oiartzungo Udalak ematen dituen dirulaguntzetan emakume zein gizonak onuradun izan daitezen saiatzea. Horretarako, kirol arloan dirulaguntza gehien jasotzen duten klubekin lanketa berezia egin beharko litzateke, eta beste guztiei ere, **oinarrizko genero-baldintzak bete ditzaten eskatu: oinarrizkoak (partaidetza datuak sexuaren arabera bereiztea, komunikazio inklusiboa eta ez estereotipatua izatea) eta zehatzak, emakumeen parte hartzea sustatzeko.**

3.1.5. Kirol astea eta Kirol-sariak

2015 urtean Oiartzungo Udaleko Kirol Sailak Kirol astea sortu zuen “Kirola, zertarako?” lelopean, kirolaren inguruan hausnarketarako espazio bat eskaintzeko asmoz.

Egitasmo honen sorreratik bertatik emakumeek presentzia izan dute ekintza honetan bai hizlari moduan, bai emakumeek kirol arloan bizi dituzten oztopoez hitz egiteko espazioen bidez. KIROLAISI enpresa da programaren zirriborroa egiteaz arduratzen dena, kirol teknikariarekin elkarlanean. Berdintasun teknikariak ere proposamenak egiten ditu ikuspegi feminista txertatzeko.

7. irudia. Oiartzungo Kirol Asteko programa 2022



oiartzun kirol astea
2022
EGITARAUA
Urriaren 23-tik 28ra

23 HOGEITA HIRU
URPEKARITZA BATAIDA 01
9:30-12:30 ELORSOROKO IGERILEKUAN*
BPXPORT
*Kirologiko lasterkeria, lasterkeria aurretik berotzea.
Pisu mugatua. Berotze batua, azotatze berriz.

24 HOGEITA LAU
ERORKETA TAILERRA +65 06
10:00-11:30 ELORSOROKO BILKURA GELAN
Abitu!

25 HOGEITA BOST
GIMNASIA AKROBATIKOA. ZATZOTZ PROBATZERAI 09
16:30-17:30 HAURTZAROKO PILOTALEKUAN
Miroki Gimnasia

26 HOGEITA ZAZPI
MENDIAK 1976 11
19:00 UDALETXEKO PLENO ARETOKAN
Giztza Mendi Taldea

27 HOGEITA ZORTZI
GIMNASIA PARKEAN +65 12
9:30-11:30 ELORSOROKO BOKODROMOAN
Abitu!

28 HOGEITA ZORTZI
ESKALADA FAMILIAN 13
18:00-20:00 ELORSOROKO BOKODROMOAN
BPXPORT

29 HOGEITA ZORTZI
OIARTZUNGO KIROL SARI BANAKETA 14
19:00 UDALETXEKO PLENO ARETOKAN
Oiartzungo Udala

30 HOGEITA ZORTZI
KIROI PROFESIONALA ETA GERO, ZER? 10
17:30 LABOREN
Labore

01 **02** **03** **04** **05** **06** **07** **08** **09** **10** **11** **12** **13** **14**

Antolatzailea: OIARTZUNGO UDALA
Laguntzaileak:

ITURRIA: https://www.oartzun.eus/eu/Zer_berri_/Agenda/20221023/Kirol_Astea:_futbol_egokituko_topaketa.

Kirol Astean **feminismo ikuspegitik kontuan hartzen diren irizpideak idatziz** edukitzea komenigarria litzateke, besteak beste:

- Emakumeak ere hizlari izan daitezen, kirol arloko aditu gisa (parekidetasuna sustatu emakume eta gizon hizlari kopuruari dagokionez).
- Kirol arloan emakumeei buruz garrantzitsuak⁷ diren gaiak ezagutaraztea.
- Emakumeek beraiek (herriko neska gazteek) kirola egin eta gorputzari buruz hausnartzeko espazio bat eduki dezaten.
- Emakumeek kirol arloan bizi dituzten oztopoei buruz zeharka hitz egitea beste gai batzuk jorratzen direnean.
- Etab.

⁷ Emakume kirolarien triada, hilekoa eta kirola, pelbis-zorua, etab. Izan daiteke hitzaldi moduan, edo tailerra (herriko gaztetxoekin lehenengo, emakume helduagoekin...). Izan daiteke parte bat Kirol Astean jorraztea eta beste bat Udaleko Feminismo Sailaren bitartez urtean zehar. Ikus txosten honetako "Partaidetzako kirola" atalean emakumeek egindako proposamenak gai honekin lotuta.

Ekintza honetan ere gastuei buruzko informazioa eta partaidetza-datuak sexuaren arabera bereiztuta jaso beharko dira (hizlari, ikusle, partaide).

Oiertzungo Kirola ikusarazteko udalak abian jarri zuen beste ekintza bat Kirol-saria banatzea izan zen. Kirolaren alde egindako lanarengatik, egindako ibilbidearengatik edo lortutako emaitzengatik nabarmendu diren oiertzuarrei aitortza egiteko saria da. Saritua aukeratzeko, herritarrek proposamenak egiteko aukera dute eskolakirola@oiertzun.org-era idatzita, www.oiertzun.eus-en edo Elorsoro kiroldegian jarri ohi den postontzian.

2016 eman zen lehen aldiz sari hau eta, 2022 arte, 7 banatu dira guztira: bi emakumeri, hiru gizoni eta bi elkarteri.

6. taula. Kirol-sariak 2016-2022

Aldia	Urtea	Saritua
1	2016	Girizia Kirol eta Kultur Elkarte
2	2017	Perico Sanroma
3	2018	Artaso Kirol eta Kultur Elkarte
4	2019	Ane Asensio
5	2020	Alain Isasa
6	2021	Guruzne Azpiroz
7	2022	Koldo Fernández

ITURRIA: Oiertzungo Udala.

Sari honek ez dakar inolako ordainsari ekonomikorik aitorten publikoa baizik. Sortu zenean ez ziren ezarri saria lortzeko irizpide zehatzak. Ondorioz, 2018 urtean, berdintasun teknikariak txosten bat idatzi zuen non sari hori banatzeko prestakuntza egokia duen epaimahai parekide bat sortu beharko litzatekeen gomendioa egin zuen.

2020 urtean Kirol Arloak sariak emateko prozedura zehaztu zuen. Lehenik eta behin, Proposamenak aurre-onartzeko honako irizpideak ezarri ziren:

- Pertsona konkretu bat izanez gero, Oiertzuarra edota Oiertzungo erakunde batean parte hartzen duena edota parte hartu izan duena.
- 16 urtetik gorako pertsona izatea.
- Elkarte izanez gero, Oiertzungoa izatea.

Ondoren, sariduna erabakitzeko pausoak zehaztu ziren:

- Lehen pausoa: bozkatzeko aukera herritarrei zabaltzea (15 eguneko epea).
- Bigarren pausoa: zerrenda herriko kirol-eragileei bidaltzen zaie eta eragile bakoitzak hiru hautagai aukeratzen ditu bakoitzari 3, 2 edo puntu bat emanez.
- Herriko kirol-eragileek osatzen duten Udal Kirol Aholku Batzordea biltzen da eta bertan lehenengo bueltako puntuaketaren emaitza aurkezten da (eragile baten batek emailaz komunikatu nahiko balitu ere onartuko lirateke). Biler horretan, puntu gehien jaso dituen pertsonen artean bozkatzeko lukete eragileek hautagai bakar bati puntu bat emanez. Puntu gehien jasotzen dituen pertsona edo elkarte da saritzen dena.

Sarituen artean emakumeak egotea positiboa da. Hala ere, **oinarrietan ikuspegi feminista txertatze aldera, neurri ezberdinak hartu ditzake Oiarzungo Udalak:**

- Herrian bozkatzeko aukera zabaltzen denean, emakume-gizon hitzak ikusaraztea, edo hiru kategoria betetzeko eskatzea: emakume, gizon, elkarte. Herri txikia izanik, errotazio sistema ere ezarri zitekeen.
- Kirol-eragileek puntuazioa emateko genero-irizpideak sartzea (esaterako, puntuatzen diren hiru pertsonetatik bat emakumea izatea, edo elkarte bada, emakumeek presentzia edukitzea).
- Udal Kirol Aholku Batzordean sariduna aukeratzeko orduan genero-irizpideak sartzea (aurreko sariduna gizonezkoa izan bazen, emakumea lehenestea).

3.2. Partaidetzako kirola


Atal honetan sartu ditugu Elorsoro udal-kiroldegian eskaintzen den kirol jarduera publikoaren azterketa (udaleko kirol abonamenduaren eta gidatutako kirol jardueren azterketa), *Abittu* programako partaidetzaren azterketa, eta norbere kabuz emakumeek egiten duten kirolari buruz jasotako iritziak.

Udaleko kirol instalazioetan eginiko jarduera honetatik kanpo, Oiertzunen bada partaidetzako kirol gisa sailkatu dezakegun kirol jarduera ere, hain zuzen, HELTA Oiertzungo Emakumeen Taldeak, Oiertzungo Udalaren laguntzarekin eskaintzen dituen tailerrak. 2022/2023 ikasturtean 21 jarduera eskaini dituzte, horietatik asko jarduera fisikoa eta kirolarekin lotuta: euskal dantzak, gimnasia, luzatze ariketak, pilates, tai chi, yoga, etab. Udaleko teknikariek zein dinamiketan parte hartu duten emakumeek adierazi dute, herriko heldu askok parte hartzen dutela HELTAK eskaintzen dituzten jardueretan, batez ere emakumeek; eta datuek pertzepzio hori berresten dute, jardueren talde kopurua ikusita: euskal dantza, 3 talde; gimnasia, 2 talde; luzatze ariketak, 4 talde; masajea, 2 talde; tai chi, talde bat; pilates, 16 talde; yoga, 12 talde⁸.

3.2.1. Kiroldegiko abonamenduak eta erabilera

Gaur egun, 4.604 pertsonak dute kiroldegiko abonamendua, 2.197 emakumek eta 2.407 gizonek. Abonamendu guztietatik % 52 gizonei dagozkie, eta % 48 emakumeei.

8. irudia. Kiroldegiko abonamenduen ehunekoa, sexuaren arabera



ITURRIA: Oiertzungo Udala.

⁸ HELTA duela 25 urte sortu zuen Oiertzungo Emakume talde batek herriko emakume helduak sozializatzeko helburuarekin. Non eskuragarri: <https://helta.eus/>

Oiartzungo biztanleriaren % 44,5ak abonamendua du, emakumeen % 42k eta gizonen % 47k. Adin-tartea kontuan hartzen badugu, kiroldegian abonamendua duten pertsona gehien 41-65 adin-tartean biltzen da.


7. taula. Abonamenduen ehunekoa biztanleriarekiko, adin-tartea eta sexuaren arabera

	Emakumeak		Gizonak		Guztira	
	Kopurua	Biztanle %	Kopurua	Biztanle %	Kopurua	Biztanle %
0-16	637	77,49	661	77,67	1298	77,59
17-40	632	50,68	693	53,76	1325	52,25
41-65	844	42,01	943	46,80	1787	44,41
+65	84	7,47	110	11,31	194	9,25
Guztira	2.197	42,23	2.407	46,94	4.604	44,56

ITURRIA: Norberak egina Oiartzungo Udalak emandako datuetatik abiatuta.

Alabaina, biztanle kopuruaren arabera aztertzen badugu, 0-16 adin-tartea da herriko biztanle gehien biltzen dituen, hain zuzen, adin horietako emakumeen % 77 eta gizonen % 78. Hurrengo bi adin-tarteetan, 17-40 eta 41-65, biztanleriaren % 40-50ak luke abonamendua, bietan ere emakumeen kopurua gizonazkoena baino zertxobait baxuagoa izanik. Hirurogeita bost urtetik aurrerako tartean, adin horretan kokatzen diren emakumeen % 7k eta gizonen % 11k du kiroldegiko abonua.

9. irudia. Abonamenduen ehunekoa biztanleriarekiko, adin-tartea eta sexuaren arabera



ITURRIA: Norberak egina, Oiartzungo Udalak emandako datuetatik abiatuta.

HELTAK egiten duen eskaintzak 65 urtetik gorako abonatuaren kopuru txikian eragina izango du, ziurrenik.

Abonamendu mota ezberdinak eskaintzen dira eta murrizketa irizpideak ere badaude, tartean, guraso bakarreko familientzat eta errenta txikia duten pertsona eta familientzat. Horrez gain, emakume etorkinek kiroldegia erabiltzen duten jakin nahi izan da. Asanblada Feministako kideek diote, haiek kiroldegian egiten duten jardueran behintzat, familia pare bat ez beste guztiak txuriak direla; zalantza dute Saharako emakumeek eskaintza ezagutzen ote duten. **Etorkinak Oiartzunera etortzen direnean, harrera plangintzaren barruan jarduera fisikoa eta kirola egiteko aukeren berri eman beharko litzatekeela uste dute.**

Kiroldegiko arduradunaren ustez Elorsoroko eskaintza zabala da eta instalakuntza aldetik zerbitzu ona du, nahiz eta zenbait azpiegitura zaharkituta geratu diren. Herriarren aldetik kexak jaso izan dira gimnasioko egoeragatik, baina Udalak bazekien horren berri, maiz gihartzeko makinak konpondu behar izaten dituztelako. Uda honetan dira gimnasioko berritze-lanak egitekoak, eta gutxinaka instalakuntzak (rokodromoa, kantxa, etab.) hobetzen joateko asmoa dute.

Kiroldegian jende asko ibiltzen dela diote bertako langileek zein kirol teknikariak; goizetan helduak gehiago, igerilekua eta termak erabiltzen dituzte gehien. Arratsaldean, aldiz, gazteak eta familiak ibiltzen dira gehiago. Gimnasioan ere jende asko ibiltzen dela diote kiroldegiko langile zein dinamiketako parte hartzaileek, baina guztiek ere gizonak emakumeek baino gehiago erabiltzen dutela diote, bereziki, gazte-kuadrillek. Kiroldegiko arduradunak dio arazo bat izan zutela 16 urtetik beherakoek gihartzeko makinak erabili nahi zituztelako, nolabait, moda kontuei egotzen die auzi hau. Honen harian, dinamika eta elkarrizketetan parte hartu duten emakumeek diote, gero eta emakume gehiago hasi dela gihartze ariketak egiten, baina ahalduntzeari baino estetikari lotuta dagoela joera hori, sare sozialetan haien erronken berri emateko. Emakumeek gimnasioa erabiltzeko ohiturarekin lotuta, hainbat emakumek aipatu du ez duela gustuko bertan sortzen den giro maskulino eta paternalista, ez direla eroso sentitzen begiradekin eta gizonak dituzten jarrera matxistekin, eta bertara joatea ekiditen dutela. Agian, uda honetan gimnasioko obra egingo dela kontuan hartuta, komenigarria litzateke, batetik, espazioaren banaketan genero-estereotipoak errepikatzea ekiditea (gizonak zonalde anaerobikoan egoteko joera eta emakumeak zonalde aerobikoan), eta gihartze zona **emakumeek ere erabili ahal izan dezaten hausnarketa** bat egitea herriko emakumeekin. Besteak beste, **gimnasioan bertan komunikazio kanpaina bat egin**

zitekeen mezu zehatzak jarritz gizonetzko jarriera matxistak ez edukitzea dei eginez; edota emakume bat izatea bertako gainbegiratzaila.

Gimnasioarekin lotuta ere, aipatu dute ondo legokeela ondoan espazio libre bat edukitzea TRX libre, auto-kargak edo zirkuitu bat egiteko, edota luzatze ariketak egiteko.

Talde-dinamiketan ere, emakume helduek gizonak igerilekuaz egiten duten erabilera aipatu dute; kale osoa okupatzen dute eta erritmoa handitzen dute igeri egiten ari diren emakumeei deseroso sentiaraziz. **Posible izanez gero, igerilekuaren erabilera libreko orduetan kaleak erritmo edo helburuaren arabera bereiztea gomendatzen dugu.**

Kiroldegiko arduradunari instalazioaren erabilera eskaera berezirik izan duten galdetzean, talde-aldagelen artean dauden bakarkako hiru aldagelaz mintzo da. Azken hauetatik biek haurtxoen aldagailuak dituzte. Zenbait familiek aldagela horiek giltzaz ixteko eskatu zuten soilik haiek erabili zitzaten, baina kiroldegitik uste zuten pertsona guztiek eduki ditzaketela arazoak banakako aldagelak erabili ahal izateko, eta arazoari eman zioten irtenbidea aldagela handietan, gizonen aldagelan zein emakumeen aldagelan, haurren aldagailuak jartzea izan zen.

Horrez gain, oraindik erantzuna eman ez zaion eskaera bat aipatu dute udal ordezkariak, hain zuzen, **identitate ez-bitarra duten pertsonen aldagelak** (eta instalazioa oro har) askatasunez erabiltzeko udalak ezartzen duen irizpidea. Berdintasun teknikariak 2022 urtean jaso zuen eskaera non esaten zen haur ez-bitarrei aldagela aukeratu behar izatea behartzen zaiela, eta beste aukera bat eman beharko litzaiekeela. Honen aurrean, Kirol Saileko teknikaria kiroldegiko arduradunarekin bildu zen eta hirugarren aldagela bat egokitzeko erabakia hartu zen. Baina, aldagela horren errotulazioa zein izan beharko litzatekeen zalantzak sortu zizkien. Egoera honen aurrean, **Oiartzungo Udalean gaiaren inguruan lanketa bat egitea onartu da eskariari erantzuna emateko.** Lanketa horren baitan aurreikusten da, LGTBIQ+ pertsonen kirol arloan dituzten zailtasunen inguruko formakuntza egitea; beharrezko bada, espazio fisiko bat esleitzea eta kiroldegirako irizpideak zehaztea; eta langileei zein herritarrei jakinaraztea.


Bestalde, padela hartzen ari den garrantzia kontuan hartuta, eta Biyurrienea gazteen elkarteak antolatuko duen txapelketa gogora ekarriz, **padeleko pistak estaltzeak** erabilera handitzeko aukera emango lukeela aipatu dute kiroldegiko langileek.

Azkenik, kiroldegiko instalazioei dagokienez jaso den azken eskari bat Hiruki Bira gimnasia erritmikoko elkarteak egin du, **entrenamendua hobetzeko horma-barrak, pareta laua eta oreka lantzeko barra bat beharko** luketela adieraziz. Baita ere, entrenamendu saioetarako Madalensoro erabili ahalko luketela aipatu dute.

3.2.2. Gidatutako jarduerak kiroldegian

Gaur egun, Elorsoro kiroldegian lehorreko 9 jarduera eta uretako 3 jarduera eskaintzen dira. Hamabi jarduera horietan guztira 660 pertsonak hartzen dute parte, horietatik % 61 emakumeak eta % 39 gizonak izanik.

10. irudia. Partaidetza ehunekoa gidatutako jardueretan, sexuaren arabera



ITURRIA: Oiartzungo Udala.

Ikus daitekeen bezala, jarduera hauetan emakumeek hartzen dute parte gehien. Hain zuzen, abonua duten emakumeen % 18k eta gizonen % 11ak parte hartzen du gidatutako jardueraren batean.

8. taula. Gidatutako jardueretan partaidetza, sexua eta abonua kopuruaren arabera

	Partaideak	Abonuak	Ehunekoa
Emakumeak	403	2.197	% 18
Gizonak	257	2.407	% 11
Guztira	660	4.604	% 14

ITURRIA: Norberak egina, Oiartzungo Udalak emandako datuetatik abiatuta.

Datu hauek adierazten dute, kiroldegian abonamendua egiten dutenek, batez ere, norbere kabuz joateko egiten dutela.

Parte hartzea jarduera motaren arabera aztertuz gero, lehorreko jardueretan emakumeen partaidetza gizonena baino bi aldiz handiagoa da, 240 eta 104, hurrenez hurren.

9. taula. Lehorreko jardueretan partaidetza, sexua eta jardueraren arabera

Jarduera	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Tonifikazioa	29		29
Ciclo Indoor	47	35	82
Yoga	8	1	9
Entrenamendu Funtzionala	80	46	126
Pilates	8	3	11
Hipopresiboak	8		8
Adinekoen Gimnasia	13	2	15
Multifitness	30		30
Haurren Eskalada	17	17	34
Guztira	240	104	344


ITURRIA: Oiartzungo Udala.

Lehorreko jardueretan parte hartzen duten emakumeen % 33k entrenamendu funtzionala egiten du⁹, % 20k ciclo indoor, % 13k multifitness, eta % 12k tonifikazioa. Gizonezkoen kasuan, % 44k entrenamendu funtzionala egiten du, % 34k ciclo indoor, eta % 16k haurren eskalada.

⁹ Baliteke emakumeek jarduera batean baino gehiagotan parte hartzea, baina litekeena da emakume gutxi egotea egoera horretan.

Jarduera guztietatik ciclo indoor eta haurren eskalada dira emakume eta gizonen antzeko partaidetza hartzen dutenak; tonifikazioan, hipopresiboetan eta multifitnessen ez du gizonik parte hartzen. Eta yoga, pilates eta adinekoen gimnasia emakume gutxik parte hartzen duen arren (8 eta 13 emakume artean), jarduera horietan gizonen parte hartzea anekdotikoa da (6 guztira).

11. irudia. Lehorreko jardueretan partaidetza, sexua eta jardueraren arabera



ITURRIA: Oiartzungo Udala.

Uretako jardueretan aldiz, bereziki haurren igeriketako partaidetza dela eta, emakume eta gizonen kopurua nahiko berdintzen da (163 eta 153, hurrenez hurren).


10. taula. Uretako jardueretan partaidetza, sexua eta jardueraren arabera

Jarduera	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Aquagym	26	1	27
Helduen Igeriketa	25	12	37
Haurren Igeriketa	112	140	252
Guztira	163	153	316

ITURRIA: Oiartzungo Udala.

Lehorrekoetan bezala, emakume eta gizonen parte hartze parekatuena haurrei zuzendutako jardueran behatu daiteke; helduen igeriketan emakumeen parte hartzea gizonezkoen bikoitza da, eta aquagymen soilik gizonezko batek parte hartzen du.

12. irudia. Uretako jardueretan partaidetza, sexua eta jardueraren arabera



ITURRIA: Oiartzungo Udala.

Azpimarratu behar da, gidatutako jardueretan gizonen partaidetzaren % 61 eta emakumeen % 32, haurren jardueretan (eskalada eta igeriketa) biltzen dela. Beraz, datu hauen arabera ondorioztatu daiteke, genero-estereotipoak berretsiz, gizonek ia ez dutela parte hartzen zuzendutako jardueretan.

Kiroldegian saiatzen dira adin desberdinetako emakumeen beharrei erantzuten. Oro har, entrenamendu funtzionala bezalako jarduerak segituan betetzen direla diote, eta aerobik edo zumba bezalako jarduerak, bete arren, monitoreak bilatzeko arazoak izaten dituztela. Batzuetan taldeak betetzea kostatu egiten da (gutxienezko kopurua 6 pertsona dute ezarrita), eta betetzen ez diren taldeetan izena-ematen dutenei beste aukera batzuk eskaintzen saiatzen dira. Adibidez, lehengo ikasturtean 12-16 urte bitarteko neska kuadrilla batek GazteFit egin zuen, baina, ikasturtea amaitu baino lehen ia talde osoak utzi egin zuen eta bi neska bakarrik geratu ziren. Hauei helduekin egiteko eskaintza egin zieten, eta orain helduekin jarraitzen dute.

Talde-dinamiketan emakume **helduek igeriketa** egiteak duen garrantzia aipatu dut; haien ustez, osasungarria denez, **jarduera hau gehiago sustatu beharko litzatekeela** emakumeen artean.

3.2.3. Jarduera fisikoa eta kirola sustatzeko programa zehatzak


2019 urtean, Oiertzungo Udalak, Abittu programa jarri zuen abian. Programa hau Eusko Jaurlaritzako Mugiment programaren barruan kokatzen da, eta bere funtsa jarduera fisikoa sustatzeko orientazio zerbitzua ematea da. Bi helburu nagusi ditu programak: patologiak dituzten eta ez dituzten pertsona inaktiboek laguntza ematea eguneroko bizitzan jarduera fisikoa barneratu dezaten; eta Oiertzuar inaktibo eta sedentarioen kopurua gutxituz, herriaren eta herritarren ongizatea areagotzea.

Proiektua tokiko agente ezberdinen elkarlanean oinarritzen da (Udala, Osasun Zentroa, ikastetxeak, kirol arloko eragileak, etab.), eta erreferentziazko pertsona baten aholkularitza du ardatz. Aipatu agenteek zerbitzuaren beharra duten pertsonen bideratze lana egingo lukete, eta ondoren, aholkulariak, doako orientazio zerbitzu pertsonalizatua emango lieke. Oiertzunen, astean 8 orduz kontratatuta dagoen emakume batek eskaintzen du zerbitzua.

Deribazioak hiru iturrietatik etorri ahal diren arren (ikastetxeak, osasun zentroa eta auto deribazioa), orain arte erabiltzaileak batik bat osasun zentrotik antzeman dira.

2021/2022 kanpainan, 28 pertsonak erabili zuten zerbitzua, horietatik 18 (% 64) emakumeak izanik.

13. irudia. Abittu programan parte hartzea sexuaren arabera



ITURRIA: Oiertzungo Udala.

Programa abian jarri zenetik gutxi gora behera erabiltzaile kopuru antzekoa eduki du. Orientatzailearen hitzetan, Covid-19ak eragindako pandemia egoeran datuek zertxobait behera egin zuten, baina egun zerbitzua berreskuratzen ari da.


11. taula. Abitu programan parte hartzea urtea, adina eta sexuaren arabera

	2021/22		2020/2021		2019/2020	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
-40	3		0	5	6	1
40-64	5		5	4	10	10
+65	10	10	3	7	6	3
Guztira	18	10	8	16	22	14

ITURRIA: Oiartzungo Udala.

Erabiltzaile gehienek (% 71), 65 urte baino gehiago dituzte eta emakume zein gizonak maila berean parte hartzen dute. Hirurogeita bost urtetik behera gehien bat emakumeek parte hartzen dute.

14. irudia. Abitu programan parte hartzea sexua eta adin-tartearen arabera



ITURRIA: Oiartzungo Udala.

Orientatzailea, astean egun batean bi orduz osasun zentroan egoten da. Bertan, astean zehar medikuek jarduera fisikorako programazio bat behar duten pertsonak artatzen ditu eta patologiarekin arabera, jarduera fisikoko plangintza pertsonalizatua egiten die. Ondoren, kiroldegian egiten die jarraipena pertsona hauei. Horrez gain, ostiraletan, Ttipi Ttapa taldearekin menditik paseoak

gidatzen ditu. Egun, Ttipi Ttapa taldean 36 pertsonen parte hartzen dute, horietatik 30 emakume izanik. Baita ere, bi astetik behin, Ereiten programarekin¹⁰ elkarlanean aritzen da.

Programari buruzko iritzia eskatuta, orientatzaileak oso balorazio positiboa egiten du. Abittuk pertsona helduen osasun fisikoa eta mentala hobetzeko duen gaitasuna aipatzen du, eta sozializazioarako tresna garrantzitsua dela azpimarratzen du. Adineko pertsonen isolamendua ekiditea ahalbidetzen duela aipatu dute dinamiketan parte hartu duten emakumeek, eta zentzu honetan HELTAK egiten duen funtzioa azpimarratu dute.

Abittuko orientatzaileak hobetzeko alderdiak ere aipatu ditu: **astean 8 ordu askotan laboreratzeko zaizkio deribazio guztiak modu egokian artatzeko; herritarrek zerbitzua ezagutzeko agian komunikazio zabalagoa egin beharko litzatekeela; eta Lezoko esperientzia ezagututa (bertan ere aholkulari da orientatzaile bera), kirola egiteko emakumeen talderen bat sortzea proposatuko luke (korrika egiteko, ipar-martxakoa, etab.).**

3.2.4. Norbere kabuz emakumeek herri eta natura-inguruneetan duten jardura fisikoa

Diagnostiko honetan parte hartu duten pertsona guztiak bat datoz Oiertzun oso herri aktiboa den baieztapenarekin. Herritarrek kirol asko egiten dute kalean eta naturan: paseatu, korrika egin, edota bizikletan ibili, bide gorrian zein mendian. Eskaladak eta pilotak ere herrian presentzia handia dute.

Hala ere, adina eta sexuaren arabera kirol-ohituretan desberdintasunak nabariak direla diote, eta desberdintasun hori batez ere sozializazio prozesuari egozten diote. Txikitatik gizonen taldean kirola egiteko ohitura handiagoa dutela diote, eta adinean aurrera egin ahala kirola egiteko modua indibidualagoa bilakatzen dela. Emakumeek, nolabait, bakardade gehiago bizi dute kirolari dagokionez, eta helduak direnean jardura fisikoa egiteko moduak bilatu egin behar dituzte. Emakumeek oraindik zaintza ardura gehiago dituztela diote, eta errazago dela emakumeek

¹⁰ "Ereiten programa eskualde mailako egitasmoa da, lan merkatutik urrun dauden eta harremanak zabalatzeko beharra daukaten pertsonen zuzendurikoa. Eskualdeko oinarriko gizarte zerbitzuetatik detektaturiko beharri erantzuten dion programa da. Arreta pertsonalizatuaren planaren baitan kokatzen da, taldean parte hartzea eta elkarbizitza errazten du eta pertsonen bizitzetan eraldaketa bultzatu nahi du. Programaren helburu nagusia partehartzaileen gaitasun pertsonal eta taldekakoak bereganatu eta garatzea da, autonomia irabaztea, gizarteratzea bultzatzea eta familia ingurune eta komunitarioan elkarbizitza egokia mantentzea". Non eskuragari: [Oiertzun Abitu eta Ereiten programaren arteko elkarlana - Eusko Jaurlaritzak - Euskadi.eus](#)

jarduera fisikoa albo batera uztea ardura horiengatik. Emakume eta gizonen lehentasunak desberdinak direla aipatu dute.

Norbere eta inguruko pertsonen adibideak jarri dituzte elkarriketatutako emakumeek. Adibidez, sokatira egiteko, auzo bakoitzean gizonen taldea osatzen dela diote, eta emakumeek berriz ahal dutenen artean osatzen dituztela taldeak. Gauza bera gertatzen dela korrika egiteko, edo palan jokatzeko (emakume bat, adibidez, Donostiara joaten da), eta honek eragina duela herri mailako txapelketetan hain emakume gutxiak parte hartzeko. Emakumeek askotan harremana kirolaren bitartez egiten dute, eta gizonak aldiz harremanaz baliatzen dira kirola taldean egin ahal izateko.

Taldea aipatuta, esan behar da, lan honetan iritzia eman duten ia emakume gehienek taldearen garrantzia eta beharra aipatu dutela. Oiartzungo Udalarik luzatzen dioten proposamen nagusienetakoa emakume kirolarien taldeak bultzatzea litzateke: “ez daude nire adinekoentzat talde kirolak, kiroldegiko guztiak indibidualak dira”, “talde kirolak eta kirolarekin batera harremanak eraiki”, “talde baten parte sentitu”, kirola egiteko gune seguruak sortzea”, “kirol desberdinak probatuko nituzke”, “ahalduntzea, badago jendea ez duena bere gaitasunetan sinisten”, “emakumeentzako talde kirolak programatzea eta dinamizatzea eskatzen dut... ondo legoke aire librean, kirol mota ezberdinak...”.

Zalantzarik gabe, Oiartzungo emakumeek taldean kirola egiteko egitasmo bat eskatzen dute, ikuspegi feminista duena, gorputzaren ahalduntzea ahalbidetzen duena, harremanak sustatzen dituen, gune seguruak izango dena, eta aire librean ere egiten dena. Partaide batek ere, ekintza hau dinamizatzen duen pertsona feminista izatea garrantzitsua dela aipatu du.

Korrika egitea gustuko duten bi emakumek adierazi dute sexu-jazarpen egoera bat bizi izana herri inguruko mendietan eta bidegorrian, eta beste batek beldurra eta ahuldadea sentitu izana bidegorrian bakarrik joaten denean. Zehazki, **Askositik aurrerako bidea iluna dagoela diote, argiztapen gehiago beharko lukeela.**

Bidegorriak maiz aipatu dituzte; goiz eta arratsalde, emakume zein gizonek erabiltzen dituztela, eta auzoen arteko konexiorako garrantzitsua dela. Bidegorriari dagokienez ekarpen bat egin dute,

hain zuzen, Ugaldetxon egin zen moduan, **Altzibarren ere komun bat jartzea**. Garbitasuna eta intimitatea bermatze aldera, komun mota aztertzea ere garrantzitsua dela aipatu dute.

Bestalde, adineko pertsonen autonomia sustatzeko indarra garatzeak duen garrantzia aipatu dute dinamiketan parte hartu duten emakumeek; **Txara parkeko zirkuitu bio-osasungarria ez dela asko erabiltzen, eta ondo legokeela erabilera gehiago ematea, adibidez, Abittu programaren bitartez.**

Azkenik, emakumeek beste bi proposamen zehatz bat egin dituzte: batetik, autodefentsa ikastaroak, norbere babeserako ziurtasun handiagoa eskuratzeko; eta kanpaina, tailer edo programazio bat egitea hilekoa eta kirola jorratuz, zentzu zabalean. Uste dute mitoak apurtu behar direla eta emakumeek informazioa behar dutela menopausia eta jarduera fisikoaren loturari buruz, haurdunaldia edota edoskitze aroa eta kirola, eta oro har, hilekoa eta kirola. Herriko adin ezberdinetako emakume guztientzat informazio garrantzitsua dela uste dute.


3.3. Kirol federatua

Atal honetan, Oiartzungo kirol-elkarteetako datuak aurkeztuko dira. Hurrenez hurren, klubetako kirol-lizentziak, teknikarien lizentziak, eta zuzendaritza batzordeetako osaketa azalduko da.

3.3.1. Kirol-lizentziak

Gaur egun, Oiartzungo 16¹¹ kirol elkarten artean 980 kirol-lizentzia biltzen dituzte. Horietatik, % 24 emakumeei dagozkie, eta % 76 gizonei. EAEko kirol-lizentzien proportzioarekin alderatuta (% 25 eta % 75, hurrenez hurren¹²), Oiartzuneko emakumeen lizentziak erkidegokoak baino puntu bat beherago daude.

15. irudia. Oiartzungo lizentzia federatuen proportzioa, sexuaren arabera



ITURRIA: www.gipuzkoa.net (Kiroldata).

Oiartzuarrek 15 modalitate baino gehiagoren artean egin dezake aukera, kirol jarduera federatua egiteko; baina datuek argi erakusten dute emakume eta gizonen artean alde handia dagoela parte hartze maila eta egindako kirol kopuruari dagokionez. Emakume eta gizonek parte hartzen duten kirol guztietan gizonen kopurua emakumeena baino handiagoa da.

¹¹ Gipuzkoako Foru Aldundiko datu-basean 20 klub azaltzen dira, baina lan hau egiteko ez dugu guztien informazioa eskuratu (ikus 12. Taula). Non eskuragarri: www.gipuzkoa.net (Kiroldata).

¹² Ministerio de Cultura y Deporte (2022). Anuario de Estadísticas Deportivas 2022. Non eskuragarri: <https://www.culturaydeporte.gob.es/dam/jcr:76870d19-0484-408e-836e-d9faa2d5d406/anuario-de-estadisticas-deportivas-2022.pdf>

12. taula. Oiartzungo lizentzia federatuak kirola, kluba eta sexuaren arabera

Kirola	Kluba	Emakumeak	Gizonak	Guztira
ARETO FUTBOLA	OIARTZUN KIROL ELKARTEA		23	23
ATLETISMOA	HAURTZARO KIROL ELKARTEA	8	16	24
EHIZA	S. BIZARDIA	1	98	99
EHIZA	OIARTZUN SASTRAKA EHIZA ETA ARRANTZA KIROL ELKARTE	2	86	88
EUSKAL PILOTA	OIARTZUNGO OIARPE PILOTA K.E.		30	30
EUSKAL PILOTA	TXOST OIARTZUNGO PILOTA KIROL KLUBA		23	23
FUTBOLA	OIARTZUN KIROL ELKARTEA	108	158	266
JUDO	C. JUDO ELIZALDETARRAK/ELIZALDETARRAK JUDO ELKARTEA	3	16	19
KARATEA	CLUB DEPORTIVO KENPO KAI HONBU	4	8	12
MENDIZALETASUNA	GIRIZIA MENDIZALE ELK.	107	213	320
MENDIZALETASUNA	OIARMENDI KIROL KLUBA	2	4	6
NEGU KIROLA	OIARMENDI KIROL KLUBA	1	1	2
SASKIBALOIA	OIARTZUNGO SASKILAGUNAK SASKIBALOIA KIROL TALDEA		16	16
TXIRRINDULARITZA	OIARTZUNGO LARTAUN ZIKLOTURISTAK TXIRRINDULARI K.E	1	7	8
TXIRRINDULARITZA	OTXE OARSOALDEA TXIRRINDULARITZA KIROL KLUBA	3	35	38
AIRE KIROLA	DELTA KLUB HAIZE		6	6
MENDIA (ESKALADA)	KATUXULO KIROL KLUBA			
MENDIA	ZORROLA TRAIL KIROL KLUBA			
ARTE BORROKA	MIKE DOENEA EUSKAL MAKIL BORROKA TALDEA			
GIMNASIA	HIRUKI BIRA GIMNASIA KLUBA			
Guztira		240	740	980

ITURRIA: www.gipuzkoa.net (Kiroldata).

Datuak kirola eta sexuaren arabera aztertzen baditugu, emakume eta gizonen artean alde handia dagoela ikus daiteke.


13. taula. Oiartzungo lizentzia federatuak kirola eta sexuaren arabera

Kirola	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Areto Futbola		23	23
Atletismoa	8	16	24
Ehiza	3	184	187
Euskal Pilota		53	53
Futbola	108	158	266
Judo	3	16	19
Karatea	4	8	12
Mendizaletasuna	109	217	326
Negu Kirola	1	1	2
Saskibaloia		16	16
Txirrindularitza	4	42	46
Aire Kirola		6	6
Guztira	240	740	980

ITURRIA: Norberak egina, www.gipuzkoa.net-eko datuetatik abiatuta.

Gizonek, 12 kirole tan parte hartzen dute; emakumeek aldiz, 8 kirole tan, horietatik 5etan emakumeen partaidetza 1 eta 4 kide artekoa izanik.

16. irudia. Oiartzungo lizentzia federatuak kirola eta sexuaren arabera



ITURRIA: Norberak egina, www.gipuzkoa.net-eko datuetatik abiatuta.

Emakumeen partaidetza aztertzen bada, ikusten dugu lizentzien % 90 (217 lizentzia, 240tik) bi kirol modalitateetan biltzen direla: futbola (108 lizentzia) eta mendizaletasuna (109 lizentzia). Mendizaletasuna alde batera utzita, non adin ezberdinetako emakumeak biltzen diren, eta jarduera beraren izaera ezberdina den; eta ehiza kontuan hartu gabe (3 lizentzia), soilik 14 lizentzia dituzte emakumeek Oiartzungo klubetan (atletismoan 3, judoan 3, karatean 4, negu kirolean bat, eta txirrindularitzan 4)¹³.


Beraz, ondorioztatu daiteke Oiartzungo 14 eta 30 urte bitarteko emakumeek futbolaz gain, ez dutela kirol-elkarte baten baitan erregularitasunez (astean hainbat saio) kirolik egiten.

Gizonen parte hartzea anitzagoa da, izan ere, lizentzien % 89 (654 lizentzia) bost kirol modalitateetan biltzen dira: ehiza, % 25 (184 lizentzia); futbola, % 22 (158 lizentzia); mendizaletasuna, % 29 (217 lizentzia); euskal pilota, % 7 (53 lizentzia); eta txirrindularitza, % 6 (42 lizentzia).

¹³ Orain arte gimnasia erritmikoak kirolari federatuak izan ditu Tximeleta klubaren baitan. Egun, Tximeletan zeuden kirolari federatuak Donostian entrenatzen dute eta Oiartzunen Hiruki Bira kluba sortu da, memento honetan soilik eskola adinekoekin lan egiten duena.

Datu hauek nabarmenagoak dira emakume eta gizonen partaidetza kategorien arabera behatzen badugu, emakume zein gizonen lizentzia gehien (% 65 eta % 66, hurrenez hurren) senior kategorian metatzen baitira (18 urtetik aurrera).

17. irudia. Oiartzungo lizentzia federatuak kategoria eta sexuaren arabera



ITURRIA: Norberak egina, www.gipuzkoa.net-eko datuetatik abiatuta.

Aipatzekoa da, baita ere, emakumeen lizentziak berdin mantentzen direla kadete eta jubenil mailan, hau da, egiten dutenek ez dute kirola uzten kategoria batetik bestera pasatzean.

14. taula. Oiartzungo lizentzia federatuak kirola, kategoria eta sexuaren arabera


Kirola	Infantila		Kadetea		Jubenila		Senior		Beteranoa		Guztira		
	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	Guztira
Aretoa Futbola								23				23	23
Aletismoa			7	7	1			1		8	8	16	24
Ehiza						1	3	137		46	3	184	187
Euskal Pilota				13		14		26				53	53
Futbola	12		24	64	28	45	44	49			108	158	266
Judoa	2		1	6		1		9			3	16	19
Karatea				2	1	1	2	3	1	2	4	8	12
Mendizaletasuna					1	4	108	213			109	217	326
Negu Kirola						1	1				1	1	2
Saskibaloia								16				16	16
Txirrindularitza		7	1	4	2	5		11	1	15	4	42	46
Aire Kirola								6				6	6
Guztira	14	7	33	96	33	72	158	494	2	71	240	740	980

ITURRIA: www.gipuzkoa.net (Kiroldata).

Horrez gain, esan behar da, beteranoen kategorian soilik gizonen parte hartzen dutela, karatean eta txirrindularitzan dauden emakume bana salbuespen izanik.

Emakume eta gizonen parte hartzea kirola eta kategoriaren arabera aztertuta, datuek agerian uzten dute futbola dela emakumeek adin guztietan egiten duten kirol federatu bakarra.

18. irudia. Oiartzungo emakumeen lizentziak kirola, kategoria eta sexuaren arabera




ITURRIA: Norberak egina, www.gipuzkoa.net-eko datuetatik abiatuta.

Infantiletan emakumeek soilik judoa (2 lizentzia) eta futbola egiten dute (12 lizentzia), baina kontuan hartu behar da adin horretan (13-14 urte) oraindik eskola kiroleko programan parte hartzen dela. Kadeteetan (15-16 urte), futbola eta judoaz gain, atletismoa (7 lizentzia) eta txirrindularitza (lizentzia 1) egiten dute.

Gizonei dagokienez, infantil mailan soilik txirrindularitzan ageri dira (7 lizentzia); baina kadete mailan atletismoa (7 lizentzia), euskal pilota (13 lizentzia), futbola (64 lizentzia), judoa (6 lizentzia), karatea (2 lizentzia) eta txirrindularitza (4 lizentzia) egiten dute. Beraz, mutilen partaidetza emakumeena baino handiagoa eta anitzagoa oinarritzko kategorietatik.

19. irudia. Oiartzungo gizonen lizentziak kirola, kategoria eta sexuaren arabera



ITURRIA: Norberak egina, www.gipuzkoa.net-eko datuetatik abiatuta.

Proiektuan parte hartu duten askok emakumeen taldeei buruz hitz egin dute, baita arlo federatuari dagokionez. Lehen emakumeen saskibaloiko talderen bat bazegoen, baina desagertu zen; boleiboleko taldea sortzen ere saiatu omen ziren, baina ez zuten jende nahikoa lortu. Informazio honek emakumeek Oiartzunen kirola taldean egiteko dituzten zailtasunak agerian jartzen ditu berriro ere.

Udal kirol politikari begira, ikuspegi feministatik lan egiteko orduan, eta emakume zein gizonen parte hartzea sustatzeko asmoz, garrantzitsua da klubaren eskaintzaren izaera kontuan hartzea. Hala, ehiza eta mendizaletasunak, beteranoen txirrindularitzak, areto futbolak eta saskibaloiak (bakoitzak talde bakarra du, gizonetzkoena, senior kategorian), eta esku pilotak (soilik gizonetzkoek parte hartzen dute), **ezaugarrien eta helburuen arabera trataera eta eskakizunak** eduki beharko lituzkete udaletik diru-laguntzak jasotzeko orduan eta udalaren azpiegiturak erabiltzeko orduan.

Nolanahi ere, arestian esan den moduan, dirulaguntza eta hitzarmenen bidez udaletik ia 77.000 € —festetako dirulaguntzak eta instalazio batzuen doako erabilera kontuan hartu gabe— jasotzen dituzten **klubek lan egin beharko lukete emakumeen partaidetza sustatzeko**. Iritzi berekoak dira azterketa honetan parte hartu duten emakumeak, eta honen harian aipatu dute, emakumeek

oraindik ere oztopo soziokulturalak dituztela kirola egiteko, estereotipoek oraindik indarra dutela, eta **ereduak beharrezkoak** direla neskak kirol ezberdinekin identifikatu daitezzen. Baina klubek emakume eta gizonei ematen dieten tratu desberdinak eragina duela, **eta kudeaketan (ordutegietan, arroparen banaketan, sare sozialetan batzuei eta besteei ematen zaien ikusgaitasuna) berdintasuna bermatu beharko luketela.**


Beraz, zalantzarik gabe, lan egin behar da Oiartzungo klubek emakumeen partaidetza sustatu dezaten, kudeaketan berdintasuna barneratu dezaten, eta ereduak ikusarazi ditzaten.

3.3.2. Teknikarien estamentua

Jarraian, sexuaren arabera banakatuko ditugu Oiartzungo elkarteetako kirol jarduera zuzentzeko ardura duten teknikari taldeei dagozkien datuak.

Herriko bost klub¹⁴ artean 48 teknikarien lizentziak biltzen dituzte, horietatik 9 emakumeak eta 39 gizonak izanik. Beraz, estamentu honetan ere gizonezkoen partaidetza emakumeena baino handiagoa da.

20. irudia. Oiartzungo klubetako teknikarien lizentziak sexuaren arabera



ITURRIA: www.gipuzkoa.net (Kiroldata).

Kirolarien estamentuan bezala, Oiartzun Kirol Elkarte (OKE) da teknikari gehien dituen kluba emakume zein gizonetan. Tradizioz gizonezkoentzat hartu diren kirolekin (futbola, pilota, txirrindularitza, etab.) zailagoa izaten da emakume teknikarien lizentziak topatzea, beraz, OKEen 6

¹⁴ Datu hauek Gipuzkoako Foru Aldundiko datu-basetik hartu dira: www.gipuzkoa.net (Kiroldata).

neska egotea agian klub horretan emakumeen taldeek historian zehar egin duten ekarpenarekin eta emakumeen atalak klubean duen presentziarekin lotuta egon daiteke.

15. taula. Klubetako teknikarien lizentziak klubaren, kirolaren eta sexuaren arabera


Elkartea	Kirola	Emakumeak	Gizonak	Guztira
OIARTZUN KIROL ELKARTEA	Areto Futbola	2	1	3
	Futbola	6	32	38
ELIZALDETARRAK JUDO ELKARTEA	Judoa		1	1
CLUB DEPORTIVO KENPO KAI HONBU	Karatea	1		1
OIARTZUNGO SASKILAGUNAK SASKIBALOIA KIROL TALDEA	Saskibaloia		2	2
OTXE OARSOALDEA TXIRRINDULARITZA KIROL KLUBA	Txirrindularitza		3	3
Guztira		9	39	48

ITURRIA: www.gipuzkoa.net (Kiroldata).

Emakumeak areto futboleant, futboleant eta karatean aritzen dira teknikari, gizonak berriz klub guztietan karatean izan ezik.

Dinamiketan parte hartu duten bi emakume atletismoko entrenatzaileak izan ziren, Haurtzaro atletismo taldean emakume teknikariak egotea ohikoa dela diote. Arrazoiak batez ere, bertako arduradunaren jarrerari egozten diote, atletismoa egiten zuten neskei entrenatzaile izatera animatzen baitzien.

21. irudia. Oiartzungo klubetako teknikarien lizentziak kirola eta sexuaren arabera



ITURRIA: www.gipuzkoa.net (Kiroldata).


Hala ere, litekeena da, klub guztietako datuak egongo balira argazkia desberdina izatea, gizonezkoen proportzioa handituz. Nolanahi ere, komenigarria litzateke **udalak datu hauek guztiak osatuta eta eguneratuta** edukitzea, batez ere diru-laguntza jasotzen duten klubei dagokienez.

Bestalde, ereduak duten garrantzia kontuan hartuta, eta dirulaguntzen atalean azpimarratu den moduan, **udalak klubek emakume entrenatzaileak edukitzea baloratzea egokitzen jotzen da.**

3.3.3. Zuzendaritza batzordeak

Oiartzungo 13 kirol-elkarteetako¹⁵ zuzendaritza batzordeetan 67 pertsonak parte hartzen dute, horietatik 18 emakumeak eta 49 gizonak izanik.

22. irudia. Oiartzungo klubetako Zuzendaritza Batzordeetako kideak, sexuaren arabera



ITURRIA: Norberak egina, Oiartzungo Udalak emandako datuetatik abiatuta.

Hamahiru kirol-elkarte hauetan hiru emakume presidente daude: Hiruki Bira Gimnasia, Hondar Irun Bidasoa Oarsoaldea Igeri Taldean, eta Oiartzungo Txost Pilota Kirol Klubean. Hain zuzen ere, klub horiek dira, Oiartzungo Saskilagunak Saskibaloiko Klubarekin batera, zuzendaritza-batzordeetan emakume gehien dituztenak

¹⁵ Honako klubak datuez baliatu gara azterketa egiteko: Oiartzun Kirol Elkartea, Delta Club Haize, Oiartzungo Saskilagunak SK, Hiruki Bira Gimnasia Kluba, Oiartzungo Txost Pilota KK, Haurtzaro Atletismo Taldea, Oiarpe Kirol Elkartea, Otxe Txirrindularitza KK, Oriamendi Kirol Elkartea, Mikel Doenea Euskal Makil Borroka Taldea, Hondar Irun Bidasoa Oarsoaldea Igeri Taldea, Elizaldetarrak Judo Taldea, Girizia Mendizale Elkartea.

Zuzendaritza batzordeetan emakumeek dituzten karguak aztertuta, gehienak (9) batzordekideak direla ikus daiteke. Gizonak, aldiz, batzordekideak (24) eta presidenteak (10).


16. taula. Oiartzungo klubetako Zuzendaritza Batzordeetako karguak, sexuaren arabera

Kargua	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Presidentea	3	10	13
Diruzaina	4	6	10
Idazkaria	2	9	11
Batzordekideak	9	24	33
Guztira	18	49	67

ITURRIA: Norberak egina, Oiartzungo Udalak emandako datuetatik abiatuta.

Diruzain kargua nahiko parekatuta dago sexuaren arabera, baina gizon idazkariak emakumeen hirukoitza dira.

23. irudia. Oiartzungo klubetako Zuzendaritza Batzordeetako karguak, sexuaren arabera



ITURRIA: Norberak egina, Oiartzungo Udalak emandako datuetatik abiatuta.

17. taula. Oiartzungo klubetako zuzendaritza batzordeak kluba, kargua eta sexuaren arabera

Elkartea	Presidentea			Diruzaina			Idazkaria			Batzordekidea			Guztira		
	E	G	T	E	G	T	E	G	T	E	G	T	E	G	T
Oiartzun Kirol Elkartea		1	1		1	1		1	1	1	3	4	1	6	7
Delta Club Haize		1	1								3	3		4	4
Oiartzungo Saskilagunak SK		1	1		1	1		1	1		2	2		5	5
Hiruki Bira Gimnasia Kluba	1		1	1		1	1		1				3		3
Oiartzungo Txost Pilota KK	1		1		1	1		1	1	2	2	4	3	4	7
Hautzaro Atletismo Taldea		1	1	1		1		1	1		2	2	1	4	5
Oiarpe Kirol Elkartea		1	1		1	1		1	1		2	2		5	5
Otxe Txirrindularitza KK		1	1		1	1		1	1					3	3
Oriamendi Kirol Elkartea		1	1											1	1
Mikel Doenea Euskal Makil Borroka Taldea		1	1		1	1		1	1	1	2	3	1	5	6
Hondar Irun Bidasoa Oarsoaldea Igeri Taldea	1		1					1	1	3	3	6	4	4	8
Elizaldetarrak Judo Taldea		1	1	1		1		1	1	1	2	3	2	4	6
Girizia Mendizale Elkartea		1	1	1		1	1		1	1	3	4	3	4	7
Guztira	3	10	13	4	6	10	2	9	11	9	24	33	18	49	67

ITURRIA: Norberak egina, Oiartzungo Udalak emandako datuetatik abiatuta.

Emakumeak diruzain dira Hiruki Bira Gimnasia, Hautzaro Atletismo Taldean, Elizaldetarrak Judo Taldean eta Girizia Mendizale Elkartean. Idazkari dira Hiruki Bira Gimnasia eta Girizia Mendizale Elkartean.

Bestalde, emakumeak batzordekide dira aztertutako klub guztietan (13tik 6etan) honakoetan izan ezik: Delta Club Aire, Oiartzungo Saskilagunak Saskibalo Kluba, Hiruki Bira Gimnasia (ez dago batzordekiderik), Hautzaro Atletismo Taldea, Oiarpe Kirol Elkartean, OTXE Txirrindularitza Kirol Kluba, eta Oriamendi Kirol Elkartea.

Deigarria da Oiartzungo Txost Pilota Kirol Klubak zuzendaritza batzorde parekidea izan eta nesken lizentziarik ez edukitzea.

Dirulaguntzen atalean esan den moduan, garrantzitsua da Oiartzungo Udalak oinarrietan kirol-elkarteen zuzendaritzak parekideak izatea baloratzea, baina hori bezain garrantzitsua da elkarte horiek estamentu guztietan emakumeen partaidetza sustatzea eta berdintasun printzipioa barneratzea klubaren kudeaketan.

Alde horretatik, diagnostikoan parte hartu duten pertsonen aldetik klubetako zuzendaritza batzordeetako kideek emakume eta gizonen berdintasunari buruz formakuntza jasotzea izan da.

3.4. Eskola kirola


Oiartzunen, eskola adinean udaletik egiten den kirol-eskaintza hiru ataletan banatzen da: Muittu programa, Gipuzkoako Foru Aldundiko JOLAS HEZI egitasmoaren baitan dagoena, eta aurrebenjamiei¹⁶ (LH2n dauden hurrei) eskaintzen zaiena; Eskola Kirola, programan izena ematen duten benjaminek (LH3 eta LH4) eta alebinek (LH5 eta LH6) egiten dutena; eta Eskola Pilota, baita ere benjamin eta alebinei zuzentzen dena, eta pilotako modalitate guztiak ezagutzera bideratzen dena.

3.4.1. Muittu programa

Muittu programan Oiartzungo bi ikastetxeek elkarrekin parte hartzen dute. Programan izena ematen duten hurrek astean bi egunez psikomotrizitatea eta koordinazioa lantzen dute jolasen bitartez. Prezioari dagokionez, hilabeteko 10 €-ko kuota ordaindu behar dute familiek.

2022/2023 ikasturtean, guztira, 24 hurrek parte hartu dute egitasmoan, horietatik 14 neskak izanik.

24. irudia. Muittu programan parte hartzea sexuaren arabera




ITURRIA: Oiartzungo Udala.

¹⁶ Gipuzkoako Foru Aldundiko JOLAS HEZI programa 6-8 urte bitarteko hurrei zuzenduta dagoen arren (LH1 eta LH2), Oiartzungo Udalak LH1en jolas librea erabaki zuen, izaera honetako jolasak duen garrantzia aintzat hartuta.

Datuak ikastetxearen arabera aztertzen badira, ikastetxe bakoitzetik parte hartzen duen haurren kopurua antzekoa dela ikus daiteke, alabaina, Haurtzaro Ikastolako nesken kopurua Elizalde Ikastetxeko bikoitza da.

25. irudia. Muittu programan parte hartzea ikastetxea eta sexuaren arabera



ITURRIA: Oiertzungo Udala.

Muittu programaren koordinazioaz arduratzen den KIROLAISI enpresako ordezkariak dio urtetik-urtera haurren partaidetza aldakorra dela, eta uste du komunikazio arazo bat dagoela. Haurrek (eta familiek) programaz ulertzen dutenaren arabera, inskripzio gehiago edo gutxiago dituzte. Beraz, **Muittu programari buruzko komunikazioa hobetu beharko litzateke** agente guztiek argi izan dezaten zein den helburua eta zer lantzen den.

Programa honetan parte hartzen ez duten haur askok beste jarduera batzuk egiten dituzte (judo, igeriketa, etab.), ziurrenik, garestiago direnak. Honen harian, udaleko kirol teknikariak adierazi du gaur egun ez dagoela oso landuta koordinazioa udaleko zerbitzu sozialekin, Muittun edo eskola kirolean parte hartzeko arazo ekonomikoak izan ditzaketen haurren familiak identifikatzeko. Normalean ikastetxeetan informazio hau izaten duten arren, **komenigarria litzateke alderdi hau sailen artean lantzea, irizpideak ezartzea, eta ikastetxeei zein familiei komunikatzea.**

Honekin lotuta ere, interseksionalitateaz galdetzean, udaleko kirol teknikariak dio saiatzen direla diskriminazio egoera anitzak kontuan hartzen, eta horren adibide dela datorren ikasturtean Mindara elkartearen bidez egingo den eskola kirola egokituko eskaintza.

3.4.2. Eskola kiroleko programan parte hartzea

Eskola Kirolean izena ematen duten hurrek, urteko programazioan sartzen diren kirolak egiten dituzte astean hiru aldiz (bi saio astean zehar, eta bat larunbat goizetan). Prezioa ikastetxe bakoitzak ezartzen du: 11,73 € hilean Hautzaro Ikastolak, eta 15 € hilean Elizalde Ikastetxeak. Programazioa KIROLAISI enpresak prestatzen du ikastetxeekin elkarlanean.


Oiertzunen eskola adineko haur gehienak aktiboak dira (% 85 gutxi gora behera¹⁷); Eskola Kiroleko programan parte hartzen dute edota beste hainbat jarduera egiten dituzte: euskal dantza, dantza garaikidea, zaldiketa, gimnasia erritmikoa, etab.

Eskola Kirolaz arduratzen den KIROLAISI enpresako ordezkariaren hitzetan, Oiertzunen kirol-hastapena futbolagatik baldintzatuta dago; haur gehienek futbola egiten dute. Horren harira, dinamiketan parte hartu duten emakumeen ustez, herriko kirol-hastapena estereotipatua da eta futbola izan ezik, emakumeek parte hartzen duten gainerako modalitateak femeninotzat hartu izan dira tradizioz.

2022/2023 ikasturtean, benjaminak eta alebinak kontuan hartuta, guztira, 275 hurrek parte hartu dute Oiertzungo eskola kirolean, horietatik 107 neskak eta 168 mutilak izanik.

¹⁷ Eskola Kirolaz arduratzen den KIROLAISI enpresako ordezkariaren iritzia da. Lehen Gipuzkoako Foru Aldundiko aplikazio informatikoaren bidez datu zehatzak jakin ahal zituzten, baina, datu-babeserako legedia dela eta, jada ez daukate informazio hain zehatza.

26. irudia. Eskola kiroleko programan parte hartzea sexuaren arabera




ITURRIA: Oiartzungo Udala.

Partaidetza sexua eta kategoriaren arabera aztertuta, datuek erakusten dute benjamin eta alebin mailan parte hartzen duten mutilen kopurua antzekoa dela; nesken kopurua, alebinetan, benjaminetan baino zertxobait baxuagoa da.

Benjamin zein alebin kategorietan mutilen parte hartzea neskena baino handiagoa da.


27. irudia. Eskola kiroleko programan parte hartzea kategoria eta sexuaren arabera



ITURRIA: Oiartzungo Udala.

Datuak kategorია, sexua eta ikastetxearen arabera aztertzen baditugu, Haurtzaro Ikastolan zein Elizalde Ikastetxean mutilen parte hartzea neskena baino handiago dela ikus dezakegu.

28. irudia. Eskola kiroleko programan parte hartzea kategoría, sexua eta ikastetxearen arabera



ITURRIA: Oiartzungo Udala.

Alabaina, ikastetxe bakoitzean parte hartzen duten neska eta mutilen artean alde handia dago. Elizalde ikastetxean neska eta mutilen arteko desberdintasuna benjamin zein alebinetan bost parte hartzaileetako da. Haurtzaro ikastolan berriz, parte hartzen duten mutilen kopurua neskena halako bi da. Gainera, matrikulatze datuak aztertuz gero, emaitzek agerian uzten dute Haurtzaro Ikastolan LH3 eta LH4ko nesken % 33k eta LH5 eta LH6ko % 30ak parte hartzen duela eskola kirolean, mutiletan matrikulatuen % 75 eta % 73 den bitartean.

Elizalde Ikastetxean, benjaminetan matrikulatutako nesken % 62k eta mutilen % 82k parte hartzen du, eta alebinetan, matrikulatutako % 62 eta % 58, hurrenez-hurren. Beraz, desberdintasun nabariak daude ikastetxeen artean nesken partaidetzari dagokionez.

18. taula. Eskola kiroleko programan parte hartzea ikastetxea, matrikulazioa, kategoría eta sexuaren arabera

Kategoria	Benjaminak (LH3-LH4)				Alebinak (LH5-LH6)			
	Neskak		Mutilak		Neskak		Mutilak	
	Eskola kirola	Matrikulen %	Eskola kirola	Matrikulen %	Eskola kirola	Matrikulen %	Eskola kirola	Matrikulen %
Elizalde ikastetxea	21	62%	31	82%	24	62%	29	58%
Haurtzaro ikastola	21	33%	47	75%	27	30%	51	73%
Guztira	42	43%	78	77%	51	40%	80	67%

ITURRIA: Norberak egina, Oiartzungo Udalak emandako datuetatik abiatuta.

Gaur egun eztabaida dute Eskola Kiroleko Mahaian, neska eta mutilen partaidetza mistoa edo bereizia izan behar duen. Haurtzaro Ikastolak talde mistoen aldeko apustua egin du, eta Elizalde Ikastetxeak talde mistoak zein bereiziak sortu ditu. Bereiziak direla eta, gainera, gurasoen aldetik kexak jaso dituzte.

Lan honetako egileak garenoi deigarria egiten zaigu, berdintasuna ez dagoen gizarte honetan, emakume helduentzat emakumeen taldeak hain beharrezko ikustea ahalduztze prozesua gertatzeko eta gauza bera ez ikustea eskolako nesKentzat. Dinamiketan behin eta berriz azpimarratu dute txikitatik neskei kirol identitatea garatzen lagundu behar zaiela; aipatu dute baita ere taldeko zein banakako kirolean parte hartzeko aukera eman behar zaiela, eta neskei elkarrekin kirola egiteko aukerak eman behar zaizkiela.

Illo beretik, Eskola Kirolaz arduratzen den KIROLAISI enpresako ordezkariaren ustez zaila da kirol esparrua asko ezagutzen ez duen norbaiti ulertaraztea partaidetza mistoa ez dela hezkidetzakoa. Hezkuntzaren logika modernoak egokiena talde mistoak sortzea dela dio, baina ez garela kontziente neska eta mutilen parte hartzeko moduan dauden desberdintasunak, besteak beste, lidergoa eta interakzio mailari dagokionez, eta lehen mailako eta bigarren mailako rolei dagokionez. Lezoko eredia gustatzen zaio; benjaminetan mistoa egiten dute, eta alebinetan bereizia.

Edonola ere, **partaidetza mistoa edo bereizia egitea, erabakitzen dena erabakitzen dela ere, beharrezkoa da neska eta mutilen parte hartzea etengabe aztertzea, kuantitatiboki ez ezik, kualitatiboki ere (iniziatiba, rolak, etab. aztertu teknika ezberdinen bidez, eta neska-mutilei haien pertzepzioaz galdetu). Ikusi ere egin beharko litzateke neskek eskola kirola ez den zein beste jarduera egiten dituzten, eta zein den eskola adina amaitu eta kirola egiten jarraitzen duten nesken kopurua. Gaur-gaurkoz behintzat, eskola kiroleko zein kirol federatuko datuek ez dute oso egoera ona erakusten emakumeen partaidetzari mailari dagokionez.**

Bestalde, Eskola Pilotan 50 hurrek eman dute izena, baina horietatik soilik 4 dira neskak. Eskola Kirolaz arduratzen den KIROLAISI enpresako ordezkariaren ustez hau gertatzeko arrazoia kulturala da; frontoietan emakume gutxi ikusten dira, beraz, eredu gutxi dituzte neskek, eta materialak ere ez du gehiegi laguntzen.


Iritzi berekoak dira azterketan parte hartu duten emakume asko. Txikitatik, herriko frontoietan, mutilak dira nagusi, eta neskak ez dira espazio horrekin hainbeste identifikatzen.

Eskola Kiroleko arduradunak dio **ez dela ekintza berezirik egiten neskak pilotara erakartzeko, eta egin beharko litzatekeela.**

3.4.3. Teknikariak

2022/2023 ikasturtean Oiartzunen 16 teknikariak egin dute lan Eskola Kirolean; horietatik 7 emakumeak dira eta 6 gizonak. Hala ere, Muittu egitasmoko teknikaria kontuan hartzen badugu, gizona, 8 emakume eta 8 gizon izango lirateke.

29. irudia. Eskola kiroleko teknikariak sexuaren arabera



ITURRIA: Oiartzungo Udala.

Datuak ikastetxea, sexua eta entrenatzen duten kategoriaren arabera aztertuz gero, emakumeen eta gizonen kopurua antzekoa da bi ikastetxeetan eta bi kategorietan.

19. taula. Eskola kiroleko teknikariak ikastetxea, sexua eta entrenatzen duten kategoriaren arabera

Ikastetxea	Kategoria	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Elizalde ikastetxea	Benjaminak	2	1	3
	Alebinak	1	2	3
Hautzaro ikastola	Benjaminak	1	2	3
	Alebinak	3	1	4
Guztira		7	6	13

ITURRIA: Oiartzungo Udala.

Teknikarien artean emakumeak egoteko lan egin du udalak. Arestian aipatu bezala, hitzarmenen baremazioan ekintza positiboa aplikatzen da emakume teknikariak kontratatzeagatik. Eskola Kirolaz arduratzen den KIROLAIS! enpresako ordezkariaren hitzetan, kontzienteki egindako lanaren ondorio da. Lehen, Hautzaro Ikastolan hezitzaile gehienak mutilak ziren, baina orain lortu da bi ikastetxeetan emakume eta gizonen kopurua parekatzea. Erreferenteak bilatzeko egin dute, neska-mutilek emakume hezitzaileak edukitzea garrantzitsua iruditzen zaie.

Azterketan parte hartu duten emakumeek, lanpostu horietan emakumeak egoteaz gain, beharrezkotzat jotzen dute saioetan ikuspegi feminista txertatzea. Honen harian, udaleko berdintasun teknikaria kurrikulum ezkutuaz mintzo da, eta aspalditik **saiatzen ari dira hezitzaileek hezkidetza fisikoan formakuntza izan dezaten. Horixe litzateke hain zuzen hurrengo erronka.**

Aurten, Eusko Jurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Eskola Kiroleko monitore laguntzailearen titulua eskuratzeko aurrez-aurreko formakuntza berri bat antolatu du (lehen online egiteko aukera zegoen, baina jada ez), eta Oiartzunen proba pilotu bat egiten ari dira Oarsoaldean izena eman duten 25 pertsonekin. Oiartzunetik, bost emakumek eta bost gizonek parte hartzen dute. Funtsezkoa da formakuntza honetako edukiek ikuspegi feminista zeharka txertatzea¹⁸, ondoren, hezitzaileek, eguneroko lanean, genero-estereotipoak hausteko eta neska zein mutilen potentzialtasun osoa lantzeko tresnak izan ditzaten.

¹⁸ Alde horretatik, Duela gutxi, Auentok monitorearen I. mailako edukiak berrikusi ditu Kirolaren Euskal Eskolarentzat (Eusko Jurlaritzak), eta proposamen espezifikoak egin ditu ikastaro horren edukietan genero-ikuspegia txertatzeko. Litekeena da berrikuspen honek antzeko ikastaroen edukietan ere eragina izatea.

4. Ondorioak

Hurrengo lerroetan biltzen dira ikuspegi feministatik Oiertzungo kirol-eremuari buruz egindako azterketaren emaitza eta ondorio nagusiak.

Oiertzungo Udaleko Kirol Saila

Oiertzungo Udaleko Kirol Saila eta Feminismo Sailaren arteko elkarlanak eragina izan du kirol arloan ikuspegi feministatik hartu diren hainbat neurrietan. Azpimarratzekoa da, kirol-politiketan aurkitu den zehaztapen maila txertatutako genero-klausulei dagokienez: kiroldegia eta Eskola Kirola kudeatzeko kontratuetan, kirol-elkarteekin eta ikastetxeekin sinatzen diren hitzarmenetan, eta dirulaguntza oinarrietan; guztietan jaso dira genero-klausulak. Hala ere, beharrezkotzat jotzen da politika horien genero-inpaktua aztertzea, horretarako datu-jasoketa zehatza egin beharko litzateke eta emaitzak eguneratuta eduki.

Kontratuetan ezartzen diren betebeharretan, azpikontratututako enpresei haur eta nerabeak indarkeriaren aurrean babesteko 8/2021 legearen eskakizunak betetzeko eskatu beharko litzateke, eta oinarrietan ezartzen den moduan, komunikazio inklusiboa bermatzea. Eskola Kirola kudeatzeko eta klubei aholkularitza emateko kontratuen oinarrietan komenigarria litzateke Kirol Astean genero ikuspegia txertatzen den neurtzeko erabiliko diren adierazleak zehaztea.

Hitzarmenetan bi atalek irizpide desberdinak ezartzen dituzte genero ikuspegia txertatzeko; irizpideak bateratu beharko lirateke. Halaber, justifikazioan, genero ikuspegia txertatzeko hartutako neurrien berri emateko eskatzea gomendatzen da, behar izanez gero zenbait adibide eskainiz.

2022 urtean 54.000,01 € banatu zituen Oiertzungo Udalak kirol-elkarteen artean haien ohiko funtzionamendurako. Gutxienez, kopuru honen % 25 (13.596,52 €), egun emakumeen lizentzia federaturik ez duen klubentzat bideratu zen (Oiarpe, Txost, Saskilagunak eta Delta Klub Haize). Bestalde, kirol ekintza bereziei dagokienez, 2022 urtean Oiertzungo Udalak 13.000 € banatu zituen kontzeptu honetan. Guztira 15 ekitaldi ospatzeko eman zuen dirulaguntza, horietatik 8 pilotakoak (esku pilota, pala, pasaka) izanik.

Dirulaguntza oinarrietan ezartzen diren genero-klausulen betetze-mailaren jarraipena egin beharko litzateke; Oíartzun Kirol Elkartea eta pilota elkarteekin zuzeneko lana egitea gomendatzen da, urtero berdintasunerako konpromisoak har ditzaten. Ekitaldi berezietan, emakumeen partaidetzari garrantzia handiago eman beharko litzaioke.

Azkenik, kirol sarietan genero ikuspegia txertatzea gomendatzen da, irizpide zehatzak ezarriz.

Partaidetzako kirola

Oíartzungo biztanleriaren % 44,5ak abonamendua du Elorsoro Kiroldegian, emakumeen % 42k eta gizonen % 47k. Adin-tartea kontuan hartzen badugu, kiroldegian abonamendua duten pertsona gehien 41-65 adin-tartean biltzen da. Biztanle kopuruaren arabera aztertzen badugu, 0-16 adin-tartea da herriko biztanle gehien biltzen dituen, hain zuzen, adin horietako emakumeen % 77 eta gizonen % 78. Oro har, kiroldegia herritar askok erabiltzen dute.

Instalazioei buruz zenbait ekarpen egin dituzte azterketan iritzia eman duten herriko emakumeek: gimnasioan gizonen aldetik bizitako jarrera matxista eta paternalistak aipatu dituzte, baita jazarpen egoerak ere. Halaber, gimnasioan, erabilera libreko espazio baten beharra aldarrikatu dute (zirkuituak egiteko, luzatze-arietak egiteko, etab.). Bestalde, igerilekuan kaleen erabilera kudeatzeko irizpideen beharra identifikatu da, eta padeleko pista estaltzeko proposamena jaso da. Azkenik, gimnasia erritmikorako material zehatza behar dela azpimarratu du Hiruki Bira klubak. Udalak, bere aldetik, identitate ez-bitarra duten pertsonak erabili ahal duten aldagela zehazteko lanketa egiteko asmoa du, herritar baten aldetik jasotako eskaerari erantzuteko.

Kiroldegian lehorreko 9 jarduera eta uretako 3 jarduera eskaintzen dira. Hamabi jarduera horietan guztira 660 pertsonak hartzen dute parte, horietatik % 61 emakumeak eta % 39 gizonak izanik. Jarduera hauetan emakumeek hartzen dute parte gehien. Hain zuzen, abonua duten emakumeen % 18k eta gizonen % 11ak parte hartzen du gidatutako jardueraren batean. Gidatutako jardueretan gizonen partaidetzaren % 61 eta emakumeen % 32, haurren jardueretan (eskalada eta igeriketa) biltzen dela. Beraz, datu hauen arabera ondorioztatu daiteke, genero-estereotipoak berretsiz, gizonak ia ez dutela parte hartzen zuzendutako jardueretan.

Kiroldegitik kanpo ere jarduera fisiko asko egiten dute herritarrek: HELTA tailerretan eta Abittu programan, batez ere emakumeek; eta norbere kabuz, bidegorrian zein inguruko mendietan. Abittu programa herrian ezagutzera emateko beharra azaldu du programa honetako orientatzaileak, eta jarduera fisikoa egiteko emakumeen talderen bat sortzeko proposamena luzatu du. Ildo beretik, Oiertzungo emakumeek proiektu honetan proposamen argia egin dute: taldean kirola egiteko egitasmo bat abian jartzea, ikuspegi feminista duena, gorputzaren ahalduntzea ahalbidetzen duena, harremanak sustatzen dituen, gune segurua izango dena, eta aire librean ere egiten dena. Horrez gain, autodefentsa ikastaroak eta hilekoa, haurdunaldia eta edoskitzea, eta menopausia jorratzen dituen formakuntza edo kanpaina egiteko beharra azpimarratu dute.

Kanpoko kirol azpiegiturari dagokionez, bidegorrian Askositik aurrerako bidea argiztatzea eskatu dute, eta Altxabarren komun bat jartzea.

Kirol federatua

Gaur egun, Oiertzungo 16 kirol elkarten artean 980 kirol-lizentzia biltzen dituzte. Horietatik, % 24 emakumei dagozkie, eta % 76 gizonei. Emakumeen lizentzien % 90 (217 lizentzia, 240tik) bi kirol modalitateetan biltzen dira: futbola (108 lizentzia) eta mendizaletasuna (109 lizentzia). Mendizaletasuna alde batera utzita, non adin ezberdinetako emakumeak biltzen diren, eta jarduera beraren izaera ezberdina den; eta ehiza kontuan hartu gabe (3 lizentzia), soilik 14 lizentzia dituzte emakumeek seniorren azpiko kategorietan Oiertzungo klubetan (atletismoan 3, judoan 3, karatean 4, negu kirolean bat, eta txirrindularitzan 4). Beraz, ondorioztatu daiteke Oiertzungo 14 eta 30 urte bitarteko emakumeek futbolaz gain, ez dutela kirol-elkarte baten baitan erregularitasunez (astean hainbat saio) kirol egiten.

Gizonen parte hartzea anitzagoa da, lizentzien % 89 (654 lizentzia) bost kirol modalitateetan biltzen baita: ehiza, % 25 (184 lizentzia); futbola, % 22 (158 lizentzia); mendizaletasuna, % 29 (217 lizentzia); euskal pilota, % 7 (53 lizentzia); eta txirrindularitza, % 6 (42 lizentzia).

Azterketa honetan parte hartu duten emakumeen ustez, emakumeek oraindik oztopo soziokulturalak aurkitzen dituzte kirola egiteko. Estereotipoek oraindik indarra dute eta ereduak beharrezkoak dira neskak kirol ezberdinekin identifikatu daitezen. Klubek emakumeen partaidetza

sustatzeko neurriak hartu beharko lituzkete eta kudeaketan (ordutegietan, arroparen banaketan, sare sozialetan batzuei eta besteei ematen zaien ikusgaitasuna) berdintasuna bermatu.

Herriko bost klubetan artean (soilik bosten datuak eskuratu dira) 48 teknikarien lizentziak biltzen dira, eta horietatik 9 (% 19) emakumeak dira. Emakumeak areto futbolean, futbolean eta karatean aritzen dira teknikari, gizonak berriz klub guztietan karatean izan ezik.

Zuzendaritza batzordeei dagokienez, aztertutako 13 kirol-elkarteetan 68 pertsonak parte hartzen dute, horietatik 18 emakumeak (% 27) eta 49 gizonak izanik. Hamahiru kirol-elkarte hauetan hiru emakume presidente daude: Hiruki Bira Gimnasia, Hondar Irur Bidasoa Oarsoaldea Igeri Taldean, eta Oñartzungo Txost Pilota Kirol Klubean. Zuzendaritza batzordeetan dauden emakume gehienak batzordekideak dira (9), gizonak aldiz, batzordekideak (24) eta presidentek (10).

Eskola kirola

2022/2023 ikasturtean, guztira, 24 haurrek parte hartu dute Muittu LH2ko haurrei zuzendutako egitasmoan, horietatik 14 (% 58) neskak izanik. Eskola Kiroleko programan berriz, LH3 eta LH6 arteko haurrei zuzenduta, 275 haurrek parte hartu dute, horietatik 107 neskak (% 39) eta 168 mutilak izanik. Katetoria guztietan mutilen parte hartzea neskena baino handiagoa da. Matrikulatze datuak kontuan hartuz, Haurtzaro Ikastolan LH3 eta LH4ko (benjaminen katetoria) nesken % 33k eta mutilen %75ak parte hartzen du, eta LH5 eta LH6ko (alebinen katetoria) nesken % 30 eta mutilen % 73k. Elizalde Ikastetxean, LH3 eta LH4en matrikulatutako nesken % 62k eta mutilen % 82k parte hartzen du, eta LH5 eta LH6n matrikulatutako % 62 eta % 58, hurrenez-hurren. Beraz, desberdintasun nabariak daude ikastetxeen artean nesken partaidetzari dagokionez.

Gaur egun eztabaida dute eskola kiroleko agenteek partaidetza mistoa edo bereizia izan behar den. Elizalde Ikastetxeak talde mistoak eta talde bereziak sortu ditu, Haurtzaro ikastolak berriz, soilik mistoak. Partaidetza mistoa edo bereizia egitea, erabakitzen dena erabakitzen dela ere, beharrezkoa da neska eta mutilen parte hartzea etengabe aztertzea, kuantitatiboki ez ezik, kualitatiboki ere. Ikusi ere egin beharko litzateke neskek eskola kirola ez den zein beste jarduera egiten dituzten, eta zein den eskola adina amaitu eta kirola egiten jarraitzen duten nesken kopurua.

Bestalde, aurten Eskola Pilotan 50 hurrek eman dute izena, baina horietatik soilik 4 dira neskak. Arrazoa kulturala da; frontoietan emakume gutxi ikusten dira, beraz, eredu gutxi dituzte neskek. Txikitatik, herriko frontoietan mutilak ibiltzen dira gehien bat eta neskak ez dira espazio horrekin hainbeste identifikatzen.

Teknikariei dagokienez, 2022/2023 ikasturtean Oiarzunen 16 teknikariek egin dute lan Eskola Kirolean, horietatik 7 emakumeak dira eta 6 gizonak. Ikastetxea, sexua eta entrenatzen duten kategoriaren kontuan hartuz, emakumeen eta gizonen atzeko kopurua aurkitzen dugu, bi ikastetxeetan, eta bi kategorietan. Egoera hau udalak kontzienteki egindako lanaren ondorio da, neska eta mutilek emakume zein gizon erreferenteak izan ditzaten. Hurrengo erronka, hezitzaileek guztiek hezkidetza fisikoan formakuntza edukitzea litzateke.

II. ZATIA: JARDUERA ILDOAK

Jarraian, Oiartzuneko kirol arloari buruz eginiko azterketatik ondorioztatu diren jarduera ildoak jasoko ditugu.

Jarduera ildo horiek esku hartzeko lau arlotan banatzen dira, hain zuzen:

- Oiartzungo Udaleko Kirol Saila
- Partaidetzako kirola
- Kirol federatua
- Eskola kirola

1

 OIARTZUNGO UDALEKO KIROL SAILA

1.1 Kontratuak

- 1.1.1 Kiroldegia kudeatzeko kontratuan enpresei haur eta nerabeak indarkeriaren aurrean babesteko 8/2021 legearen eskakizunak betetzeko eskatzea eta komunikazio inklusiboa bermatzeko eskatu.
- 1.1.2 Eskola kirola eta klubei aholkularitza. Kirol astean, genero ikuspegia ebaluatzeko erabiliko diren irizpideak zehaztu, adibidez, emakume eta gizon hizlarien kopurua, partaide edo entzule izan diren emakume eta gizonen kopurua, gaietan emakumeek kirol arloan dituzten oztopoak islatu izana, edo kirolean bereziki emakumeei eragiten dieten gaiak jorratzea.

1.2 Hitzarmenak

- 1.2.1 6.2 atala eta 10 ataleko irizpideak bateratu, bereziki, genero ikuspegia txertatzeko ekimenak antolatzeari dagokionez. Agian, 6.2 ataleko hirugarren irizpidea erabili daiteke eredu, bizpahiru adibide gehiago sartuz.
- 1.2.2 Gastuak justifikatzeko edota ikasturteko balorazio txostena egiten denean, genero ikuspegia irizpidea betetzeko egindakoaren berri ematea eskatu. Agian, azken irizpide hau gehiago zehaztu beharko litzateke hitzarmenetan bertan “emakumeek parte hartzeko hartutako neurriak edo abian jarritako ekintzak” jarritz parekidetasun-irizpideen artean.
- 1.2.3 Komunikazio parekidea erabili izanaren justifikazioa eskatu.
- 1.2.4 Kirol egokitua lantzen dutenek informazioa sexua eta desgaitasunaren arabera emateko eskatu.

1.3 Dirulaguntzak

- 1.3.1 Ohiko funtzionamendua: Klubek genero irizpideak betetzen dituzten jarraipena egin eta genero-inpaktua neurtzeko informazioa eguneratuta mantendu.
- 1.3.2 Ohiko funtzionamendua: Oiarzun Kirol Elkartea eta Oiarpe Pilota Elkartearekin lanketa espezifikoak egin urtez-urte berdintasunerako konpromisoak har ditzaten.
- 1.3.3 Ekitaldi bereziak: Oinarrietan emakumeen partaidetzari garrantzia handiagoa eman, adibidez, irizpide bakoitzaren pisu espezifikoan berdintasunari puntu gehiago emanez, eta horretan, partaideen % 50 emakumeak badira puntuazio altuena esleitu, puntuak gutxituz parte hartzen duten emakumeen ehunekoaren arabera.
- 1.3.4 Ekitaldi bereziak: VI eranskinean datuak sexuaren arabera bereizteko eskatu.
- 1.3.5 Festak: genero-baldintzak bete ditzaten eskatu: oinarrizkoak (partaidetza datuak sexuaren arabera bereiztea, komunikazio inklusiboa eta ez estereotipatua izatea) eta zehatzak, emakumeen parte hartzea sustatzeko hartutako neurrien berri ematea.

1.4 Kirol sariak

- 1.4.1 Sariak emateko oinarrietan ikuspegi feminista txertatze aldera, irizpide zehatzak ezarri.



2 PARTAIDETZAKO KIROLA

2.1 Abonamendua

- 2.1.1 Etorkinak Oiartzunera etortzen direnean, harrera plangintzaren barruan jarduera fisikoa eta kirola egiteko aukeren berri eman.

2.2 Instalazioa

- 2.2.1 Emakumeek ere gimnasioa erabili dezaten hausnarketa bat egin herriko emakumeekin. Besteak beste, gimnasioan bertan komunikazio kanpaina bat egin zitekeen mezu zehatzak jarritz gizona zkoen jarrera matxistak ez edukitzea dei eginez; edota emakume bat izatea bertako gainbegiratzaila.
- 2.2.2 Gimnasioan espazio libre bat esleitu TRX librea, auto-kargak edo zirkuitu bat egiteko, edota luzatze ariketak egiteko.
- 2.2.3 Igerilekuaren erabilera libreko orduetan kaleak erritmo edo helburuaren arabera bereiztu.
- 2.2.4 Identitate ez-bitarra duten pertsonen aldagelak. Lanketa egin eta irizpideak zehaztu.
- 2.2.5 Padeleko pistak estaltzea baloratu.
- 2.2.6 Gimnasia erritmikoko entrenamendua hobetzeko horma-barrak, pareta laua eta oreka lantzeko barra bat jartzea.

2.3 Jarduera gidatuak

- 2.3.1 Emakume helduek igeriketa egin dezaten sustaztea.



2.4 Jarduera fisikoa sustatzeko programak. Abittu.

- 2.4.1 Orientatzailearen asteko ordu kopurua handitzea baloratu.
- 2.4.2 Kirola egiteko emakumeen talderen bat sortu (korrika egiteko, ipar-martxakoa, etab.).

2.5 Norbere kabuz emakumeek herri eta natura-inguruneetan duten jarduera fisikoa

- 2.5.1 Oizartzungo emakumeek taldean kirola egiteko egitasmo bat eskatzen dute, ikuspegi feminista duena, gorputzaren ahalduntzea ahalbidetzen duena, harremanak sustatzen dituen, gune segurua izango dena, eta aire librean ere egiten dena.
- 2.5.2 Bidegorrian, Askositik aurrerako bidea argiztatu.
- 2.5.3 Bidegorrian, Alzibarren ere komun bat jarri.
- 2.5.4 Txara parkeko zirkuitu bio-osasungarriaren erabilpena sustatu, adibidez, Abittu programaren bitartez.
- 2.5.5 Emakumeentzat autodefentsa ikastaroak antolatu.
- 2.5.6 Kanpaina, tailer edo programazio bat egitea hilekoa eta kirola jorratuz, zentzu zabalean (menopausia eta jarduera fisikoa, haurdunaldia edota edoskitze aroa eta kirola, etab.).

3 KIROL FEDERATUA

3.1 Kirol-lizentziak

- 3.1.1 Kirol-elkarteei ezaugarrien eta helburuen araberako trataera eman. Klubek lana egin beharko lukete emakumeen partaidetza sustatzeko (ereduak sortu eta ikusarazi), eta kudeaketan (ordutegietan, arroparen banaketan, sare sozialetan batzuei eta besteei ematen zaien ikusgaitasuna) berdintasuna bermatu beharko lukete.

3.2 Teknikariak

- 3.2.1 Udalak klubetako teknikarien datuak osatuta eta eguneratuta eduki, batez ere diru-laguntza jasotzen duten klubei dagokienez.

3.3 Zuzendaritza batzordeak

- 3.3.1 Kirol-elkarteetako zuzendaritza batzordeetako kideei emakume eta gizonen berdintasunari buruz formakuntza eman.



4 ESKOLA KIROLA

4.1 Muittu egitasmoa

- 4.1.1 Programari buruzko komunikazioa hobetu.
- 4.1.2 Muittun zein Eskola Kirolean parte hartzeko hobariak zehaztea Udala eta ikastetxeen artean eta familiei informazioa helarazi.

4.2 Eskola kirola

- 4.2.1 partaidetza mistoa edo bereizia egitea erabakitzen dela ere, neska eta mutilen parte hartzea etengabe aztertzea, kuantitatiboki ez ezik, kualitatiboki ere (iniziatiba, rolak, etab. aztertu teknika ezberdinen bidez, eta neska-mutilei haien pertzepzioaz galdetu).
- 4.2.2 Neska-mutilek eskola kirola ez den zein beste jarduera egiten dituzten eta eskola adina amaitzean kirola egiten jarraitzen duten aztertu.
- 4.2.3 Klubekin elkarlanean, neskak pilotara erakartzeko plan bat diseinatu eta abian jarri.

4.3 Teknikariak

- 4.3.1 Hezitzaileek hezkidetza fisikoari buruzko formakuntza dutela bermatu.





www.aventoconsultoria.com



E info@aventoconsultoria.com
www.aventoconsultoria.com

Pokopandegi 11
012 bulegoa
20.018 Donostia

T 943 317 038
F 943 317 048